

EUSKALGINTZA BERDIN GIZAGINTZA

JOXE AZURMENDI

AURKIBIDEA

Euskal arazoa ezkerretik birpentsatu	386
Zer da euskalduna izatea?	395
Zer da euskalgintza? (Etorkinen arazoa)	402
Historia gizagintza da: euskal historiaren problema	414
XIX. mende gurutzeala	418
Iraganaren inperioa	422
Iraultza	425
Gizatasunean sinetsi: euskaldun berria eraiki	428

Rikardoren obra idazkintza publikoan emana izan da. Nazio arazoa inoiz ez dago zuzenean tratatua termino esplizitoetan Rikardoren obran. Ebidentea da. Honek esanahi du, Rikardoren pentsamendua ez daukagula beharbada guk gaur erabiliko genituzkeen terminoetan espresatuta bilatzerik.

Arrazoi bakarra ez da frankismoa eta zentsura. Rikardok bere burua “gazteria berri” eta “ezker berria”n paratzen du. Ezker berri honen eginkizun bat hain zuzen euskal arazoaren birgogoetak izan behar duela, uste du. Ahalegin kolektibo horretan barruratzen da eta zentzu hori du Rikardoren beraren birgogoetak. Saio hori ez dago teorigintza desinteresatu kuasiakademiko bezala eginda (“libururako”): jende bati eta momentu bati, une horretan zegoen sentsazioari, erantzuten dio. Ekintza baten zerbitzuan dago, Rikardoren asmoan; hobeto, egitasmu batekin dago pentsatua, betiko teoria eta praxiaren batasunaren amore hartatik. Baina ez dago zuzenean erakunde edo ekimen aurrenik politikoren bati begira eginda ere, hots, EAJ-PNV edo ETAK orduantxe eraman zezaketen ekintzari edo horietan zebilkeen jendeari: izatekotan, bere proiektu kulturalekin eta horietako jendearekin legoke erlazioan lehen-lehenik. H. d., batez ere birgogoeta kulturala da hein horretan. Ez politikoa. Honek muga batzuk ezartzen dizkio gaiari beharbada. Gehi dezagun, halere, “abertzaletasunaren” makurrik negatiboena kulturala zegoela honez gero bilakatuta Rikardoren ustez. (Sozialismo zaharrarena bezalaxe, etab.). Iragandako kultura maskal batean bizi zela, baratu zela. Eguneratu beharra zeukala, interesatuko bazen.

Gogoeta honek “abertzaletasun” berri baten formulazioan lagundu nahi du hortaz. Ezker berri “abertzale” baten kreazioan kolaboratu. Konkretuki nola imajinatzen ote zuen Rikardok euskal ezker berri hori? Nola erlazionatzen ote zen ETArekin?... Erantzun zaileko itaunak dira, nik eskuetan ditudan materialekin behintzat, nahiz eta edozeini

bururatzen zaizkionak izan apika. Hasieran –bere “fase politikoan”– Rikardok ez zuela ETArek aukera egin, esan behar da. EGIN sartu zen eta ibili zen, 1963-1965, kristau-demokrata da orduan¹. Geroago, sozialista bilakatua bera, “sozialismo esentzialista” kritikatu duenean (1967), baliteke ETArek aro bat izatea begitan duena bere kritikarekin², baina “era guzietara, etapa hau bada denbora apur bat gainezkatua, superatua, izan zela” (RA 74). Azkenik, panorama politikoan beste opziorik hozitu ez delako edo (“Felipe” eta antzekoak inoiz ez ditu onartu), 68-69ko testuak errepasatzen baditugu, ez bakarrik ez da inon sumatzen ETArek kritikarik, ezpada, kontestuan, “ETAren apologia” gisa bakarrik interpreta liteke, nik uste, haren adierazpenetako asko: zuzenki, biolentziaz, etab., dihardutenak batzuk, edo, zeharka, beste herri batzuek ari duten askatasun borrokaz, etc., apaileturikoak. Jakinmintxoak aparte, seguruenik ez da arazo oso inportantea (guk bilatzen duguna haren pentsamendua da) eta ez du merezi hemen zientzia-fikzioa egitea. Dena dela, herriko ETArek preso andoaindarrei³ eskaintzen dien omenalditxoa (HL 244) gainbaloratzerik ez badago, Rikardok Britainiako Liberazio Fronteaz 1969an idatzi duenak (HL 123-127), gogoia hemen zuela luman hartua dirudi, eta intentzio biluz-biluziarekin.

“Abertzale” hitza (“nazionalista” signifkatzten du harentzat), atenzioa ematen du, Rikardok ez duela batere maite⁴. Espelikazioa badauka eta ez da zaila⁵.

¹ Rikardoren idazkiak laburdura hauekin aipatuko dira: Pat = *Politikaren atarian*, Lur, Donostia 1969. RA = *Rikardo Arregi*, Jakin, Oñati 1971. HL = *Herriaren lekuko*, Jakin, Oñati 1972.

Ik., adibidez, HL 131: “Nik, gazte, kristau eta demokrata bezala...”, Aita Santuaren hitzaldi baten iruzkina gazteria demokratikristauari (1964).

² Euskaltzaleen artean, euskal belain gaztearen artean esan nahi dut, sozialismoa planteatu zenean, lehendabizi *sozialismo esentzialista* bat bezala planteatu zen” (RA 72).

³ Patxi, Inaki, Jose Ramon, Juan Martin”.

⁴ Erabiltzen duen zenbait alditan esanahi negatiboa du (=nazionalismo frantsesa, errusiarra, etab.); inoiz ez edo oso-oso gutxi erabiltzen du euskal abertzaletasunari erreferitzeko, horrentzat ia sistematikoki “euskaltzaletasuna” hobetsiz; eta, arras oker ez badago, sekula ez bere postura propioa adierazteko.

⁵ Abertzaletasunetik etorriz, “nazionalismoa” beti txartzat daukan tradizioan kokatu du bere burua (abertzale + sozialista izatea oraindik proiektu soil da Euskal Herrian). Orduan, batzuek “patriotismo” terminora jo izan dute, salbatu nahi zutena horrela salbatzeko, Rikardok “euskaltzaletasun”era, ahal dela beste hitz tabu hura ukitzea ebitatuz beti ere. “Adimenaren gainean hitzek daragiten biolentzia izugarria da”, zeritzon Lord Bacon Verulamgoak.

Nik uste dut, era berean, "herri" dela Rikardok erabili nahiago izaten duen terminoa⁶, eta ez "nazioa", euskaldungoari buruz batik bat eta jeneralean ere⁷. Gero gehiago.

Ideia-aren edukinari gagozkiola, independentzia inoiz ez da aipatzen (esan dugu haren gogoeta batez ere kulturala izan dela). Beharbada independentzia adierazten duena "askatasuna" da? (Hala izan baita garai batean)⁸. Estatureria, zentralismoa (Estatuaren "eredu napoleonikoa", Europan batez ere Estatu latinoek jarraitu dutena, HL 107), zentsurak tolera zezakeen tamainan gaitzetsia dator. Joera regionalista edo eskualdekariek, aitzitik, asko interesatu dute beti, eta agian neurri horretan egitea ilegaltasunean erori gabe horixe bakarrik posible zuelako ez da izan⁹.

Zaila da, bestalde, Iparraldeaz idatzi nahi eta, nazio batasuna gogoratzearen propio idazten duen pasartean, honelakoxe formulazio hau libertate osoarekin asmatu duela kazetariak imajinatzea: "Gu ere Euskal Herria garenez, gure Herriaren eskualde batentzat inportantzia handikoa dena guretzat ere oso inportantzia handikoa da" (Ib., 116)¹⁰.

Sarrera nahasi guzti honekin, ez dudala uste, aitortu nahi nuen, Rikardoren pentsamendua Alderdietako edo Zuzenbideko formula eta termino politiko doi-doietan traduzitzea dagoenik zehatz-mehatz, bera horretan aritu ere ez delako eta testuek berek¹¹ holako pretentsiorik

⁶ Maiuskulaz idatzia toki askotan.

⁷ Ez da, Rikardok ez duela erabiltzen nazio kontzeptua (beste hizkuntzetan guztiz ohiko Estatuaren esanahiaz ere! Ik. HL 337), baizik gure artean askotan egiten den nazio/Estatu bereizketari, ez dirudiela atxekitzen zaionik forma horretan.

⁸ Hona hemen testu polit bat, 1963koa bera, *Indonesiako zalapartak direla eta*, gaur oso bestela idatziko litzatekeena seguru asko, neokolonialismoa zeritzon kontzeptuaren inguruan: "Abertzaletasun [nazionalismoa? patriotismoa?] beroenak ere ez du ezertarako balio ASKATASUNA [?] ez den bitartean. Eta beldur naiz, urte hauetan sortu diren herri [=Estatu] hauetan askatasuna [=independentzia] iritsi beharrean, beste menpetasun bat [=dependenzial] ez ote duten hartu" (HL 336).

⁹ 1968an JAKINEk bere buruaren definizio ideologikoa bezalako bat egin zuen (29, 1968, 1-6) urte hasieran. Zati politikoa, aldizkaria "ezkertargo berria"ren saioretan arduratua agertzen da, internazionalista, antiimperialista, bakealde, etab., eta honelaxe amaitzen da: "Herriak [nazioek!] nortasun bat dute: eta nortasun hori gerizatzeko bide egoki bat, gure ustez, federalismoa da, península barruan dela, edo kontinente barruan dela" (3. or.). Estatuak arrunt "paseak" direla da Santamariaren ustea.

¹⁰ Ik. halaber HL 127 ("Euskal Herria euskaldun guziok osatzen dugun Herria denez").

¹¹ Ikerketa eskrupulosoago batean, Rikardoren ideien eboluzioari (1), jendearen nahiz Rikardoren zalantza terminologiko arruntei orduan (2), eta zentsurak baldintza zitzaizkeen formulazioei (3), errigortsu jaramon egin beharko litzaioke puntuok ziurtatzeko. Aitortzen dut neronek ez dudala Rikardoren testua hain ahikorki miatu.

inoiz ez dutelako. Zorionez, egon ere ez dago alde horretan Rikardoren interesik handiena guretzat.

Rikardoren gogoeta handiaren interesa, alegia, guri zer interesatzen zaigun ez, berak non zentratu duen baizik bere interesa, abertzaletasun moderno baten sentidoan, kulturari, datza. Asmatzen, edo haren ideien harimuturrak nolabait konbinatzen, hasita, beharbada atera liteke Rikardoren "utopia" politikoaren eskema bat honelakotsua: kapitalismoak porrot egin behar du nahitaez eta egingo du; iraultzak orduan Estatuak ezabatuko ditu; Europa irauli horretan eskualde bat izango da Euskal Herria; euskalduna izango da. Puntu hauek denak autentikoak eta Rikardoren testuan erraz aurkitzekoak dira noski: maila horretan ez dira inolaz ere nik asmatuak. Baina ez dira inola ere plan bat, ideia markoak baizik ez dira funtsean. Ongi kontsideratuta, "fede" antzeko ikuskizun zertugabe orokor-orokor lanbrotzua besterik ez geroari so, ezker berrian (XIX. mendean gerozko korrante oso batean hobe: Proudhon, etab.) aski zabaldua ibil zitekeena tenore hartan. Ideia horietan, horrela, denborak, esate baterako, ez du batere lekurik (nola bukatuko da Franco?), eta ezin esan liteke hori pentsamendu politiko landu bat denik hain zuzen. Beraz, eta konklusiorako, Rikardorena, politiko baina gehiago, politikaren fundamentazioko pentsamendua kontsideratuko dugu hemen.

Euskal arazoa ezkerretik birpentsatu

Bere bizitzako momentu batean Rikardo politikoki ezkerrean posizionatu da: tradizio abertzaletik dator eta, beraz, euskal arazoa ezkerretik birpentsatzeko arazoa aurkezten zaio. Baina —eskuinarekin edukiko duena gero ikusiko dugu astiroago— birpentsaketa hori, ezkerretik, prozesu polemiko bat izango da ezkerrekin ere. Rikardok ez baitu komunisten edo sozialisten doktrina tradizionala ere nazio arazoei buruz (horrelakorik estriktoki baldin badago) beste gabe ontzat eman. Horiekiko bere diferentzia, ordea, ez da momentu batean behin betiko erabakita ikus daitekeena, tesi batean edo, puntualki. Rikardoren pentsamendua bilaketa prozesu batean definitzen da, askotan ukatzen duen haren ikuskeraren oposizioz.

Estreina (ezkerreko) regionalismoan progreso bat historiaren sentiduan agurtu du. Rikardok ongi ohartu du sozialismoak, zentralismo jakobinoari tamalez jarraiki (eta errege absolutisten tradizioari!), "Estaduen eginkizuna gehiegi indartu du[ela]", gero kapitalisten eta burokraten atzamarretan geratzen den Estatu horixe. Sozialista batzuen

buruetan aldakuntza hasia dela ustez, halere, pozten da: “Gutxi badira ere, hasiak dira Frantzia sozialista diren pentsalari eta politikagileak sozialismoaren, eta horrexegatik Estadauren, eginkizunak berpentsatzen”¹². Hala pentsatuz, edo hala desiratuz gehiago, honelaxe ebazten du: “Rejioen problematika sozialismoaren bitartez ententitu eta konpondu daiteke. Oker dabilta ezkertiarak zentralismoaren alde jokatzeko dutenean”¹³. Michel Phipponneuren proposapenok biltzen ditu regionalismo ezkertiar berri baten doktrina bezala:

“Rejio bakoitzekoei utzi behar zaie erabakitzen bere rejioa zelan eta nolakoa izan behar duen.

Rejioak bere parlamentua behar du. Eta bi kameretakoak izatea hobe. Bata diputatuena, herriak zuzenean aukeratutakoa. Bestea, senadu gisan, ekonomia eta gizarte antolaketaren ordezkariek osatua.

Rejio bakoitzak gobernu bat behar du eta bere dirua ere bai. Rejioaren hizkuntza eta kultura bertako edukazioan sartu behar da.

Herrien Europa egindakoan rejioak Europako instituzioekin zuzen zuzenean ententituko dira.

Honela dio egileak eta honela bukatzen dugu liburu hauen berri ematea: «La participation directe, active, des représentants des régions à la vie de la Communauté européenne qui ne serait plus ‘un magma technocratique’, mais exprimerait la volonté populaire, assurerait un bon équilibre du territoire européen, elle donnerait la garantie que l’Europe démocratique et socialiste, l’Europe des peuples, serait aussi l’Europe des régions».

Rikardok, beste batzuek (eskuinetik) Europan ipinten zituzten ueste onak kritikatzeko zituen arren, berak ere 68-69 inguruan, ezker berria bezala, itxaropen handia eduki du sozialismo europarraren eta bereziki frantsesaren eboluzio batean “herrien Europa” baterantz, egungo Estatuon gaidipenez. Kultura politikoa iraultza bat bezala ikusten zuen Rikardok eboluzio hori (zinezkoa zelakoan dagoeneko!), gerra aurrekoarekin konparatuta. Izan ere, “Estatubako nazioak” deitu ohi direnen

¹² ARREGI, R., “Rejioei buruz liburu berri bi”, *Jakin* 27-28 (1967) 92. Liburu biok dira: R. LAFONT, *La Révolution régionaliste*, Paris 1967, eta M. PHILIPPONNEAU, *La gauche et les régions*, Paris 1967.

¹³ *Ib.*, 96.

mugimendu abertzaleak, eskuindarrak izan dira lehenago. “1939 aurreko gisa horretako alderdi abertzale gehienak –eslobakiarrek, kroatak, bretoinak eta– Hitlertiarren aliadu bihurtu ziren, eszepzio batzuk kenduta (hortik igartzen da eszepzio horien balioa eta ausardia). Orduz geroztik joera horretako jendeek kutsu txar hori izan dute. Baina azken urte hauetan zerbait harrigarri gertatzen ari da Europa guzian: ezkertiarrek, batez ere ezkertiar berriak, dira eskualdekatzearen defenditzaile berriak. Frantzian, sozialista ezkertiar berriak dira Britainaren beregaintasunaren alde jarri direnak. Italian, komunistak eta sozialistak dira eskualdekatzearen alde borrokarik gogorrenak egiten ari direnak. Txekoslovakian, Dubcek eta beste adiskideak dira Txekoslovakia federazio izaera eman nahi diotenak” (HL 351-352).

Ezkerra bere egiazko izaerara eta inspirazio jatorrera itzultzea besterik ez zen hori Rikardoren ulerpidean. (Horregatik hartzen zuen hain erraz jada gertakaritzat). Zenbait zirkunstantziak eragindako desbidaketa historiko baten buruan, ezkerria, hots, “ezker berriak eta jatorrak”, ekibokazio historikoak “konturatu” eta konbertitu egin dira. “Eskualdekatzea, federalismoa, Estaduak desegiteko joera, ezkertargoaren izaeran dago. Ezkertiarrek beti darama Estaduarenganako etsaigoa, mesfidantza, beldurra. Gure egunetan, sobiet-zale eta sozial-demokratetatik at, joera hori ezkertiarren artean sendotzen ari dela aitortu behar. Izan ere, gaurko Estaduak gero eta bildurgarriagoak eta zapaltzaileagoak dira. Eskualdeei beregaintasuna ematea, Estaduari oztopo bat gehiago jartzea da. Eta gehiago izango da, eskualdea Estadutik bereziago den neurrian. – Horretan lanean dabiltzanak, beraz, kondairaren sentiduan ari dira lanean, ez desgaraian, batzuek dioten bezala. Etorkizuna da berea” (Ib., 352).

Ezker berrian edo ezkerren berritzean itzaropentsu bazebilen, ezker zaharrek traza onik etzuten erakusten urte horietantxe. Rikardoren lumaren aurre-aurrean, “nazio arazoaren” bi kasu ezin eskandalagarriago lehertu da garai horretan bloke sozialista barruan: Txina-SESB gatazka eta Txekoslovakia inbasioa.

TXINA-SESB arteko istiluen lekuko, 1963an horiek jendaurrekoak bilakatu gero, sozialismora pasa baino lehenagotik izan da Rikardo, eta lehen unetik zuzen igarri dio (alegia, fededun askoren ezina barik), diferentzia ideologikoen itxura azpian zegoena interes nazional kontrajarrien trikea zela. Komunismoa (sozialismoa) praxian oso urruti dago, teoriarik baieztazen duen nazionalismoaren gaindipenetik. Historiak erakusten du: “Beharbada komunisten artean ikusten ditugun tiki-miki eta hasarreek erakusten digute ondoen –idatzi du 1964eko urrian–

komunismoaren erorketa nondik etor daitekeen. Komunismoa, hasieratik eta jatorriz, nazioartekoa zen eta izandu da. Eta bere frakasorik handienak nazioartekoa ez izatearekin batera etorri zaizkio. Europako lehenengo gerratearen hasieran sozialista partidu bakoitza abertzale bihurtu zelako. Orain, lehenengo Stalin errusiar abertzale purrukatua egin zelako, eta geroztik nazio bakoitzeko komunismoak bere bide berezia aurkitu nahi duelako, eta Txina eta Errusiaren arteko borroka delako” (Ib., 149).

Sozialista (“berri”) bilakaturik, nazionalismo horiek, hots, errealitateak, seriooki konprometatzen duela teoria sozialista ofiziala, planteatu beharko du (1967, urtarrila)¹⁴. Ortodoxia jatorrean nazionalismoak “burgesa” izan behar du derrigor. Sozialismoa eta nazionalismoa izan ezinezkoa da. Metafisikoa. Zer ari da gertatzen orduan? “Hori marxismo ofizial eta ortodoxoekin hasarre dagoen gauza da. Honek dioenez proletargoa agintera iritsitakoan eta produkzioko tresnak horien eskuetan jarriz gero, problema horiek, nazioen arteko hasarreak, desegingo omen dira. Ez da, ordea, hori, gertatutakoa” (Ib., 156-157). Gainera, kontua ez da Txinak, demagun, erreakzio nazionalista bat edukitzea, alde guztietatik inguratua eta mehatxatua sentitzen delako¹⁵. Nazio-intereskeriak eta tirabira nazionalistak bloke sozialistako Estatu guztien artean nabaritzen dira honez gero. Hori da kontua. “Zer adierazi nahi digu horrek? Klasearen batasunak, proletargoaren batasunak, ez duela esan nahi naziotasunaren problemak bigarren maila batera pasatzea, nazionartekotasunak ez duela sentidurik naziotasuna ahazten baldin bada” (Ib., 157). Rikardori esperientzia horrek, urte horietan klase-arazo/nazio-arazo dela eta ez dela hemen erabili diren iskanbiletan gauzak dogmatismo gabe ikusten irakatsi dio. Hau da, ez du utzi polemikak euskal arazoa alternatiba prefabrikatu horretan artifizialki planteatzea hertsia zezan. Joan Marti Torrealdaik puntu honetan haren pentsamendua laburtu duen bezala: “Gure estrukturak, gure giza-ereduak, gure giroak, hitz batean, gure gizarteak ez digu uzten gizon izaten, gure gizakera euskera delako. Beraz, euskaldun bezala gaude batipat

¹⁴ Bateratsu idatziak izan behar dute “Txina, Mao eta marxismoa”, Argiako saio laburrak eta “Sozialismoa modan dago” saio handiak, *Jakin* 24 (1967) 36-51 (cfr. RA 69-87). Baina JAKINeko artikuluan klase batasunaren ezinbestekoan jartzen da azentua: “Klase batasuna derrigorrezkoa da (...). Sozialista politika batean ezin daitezke nazioa eta gaitortzeak lehendabizi jar; eta gero sozialismoari dei egiteak hori defenditzeko, sentidurik ez du”. Pentsa daiteke, Argiako artikuluan Rikardok bere saio handiari zuzentatxo bat erantsi nahi ziola (honen erredakzioa aurrekotzat jotzen dugu hortaz).

¹⁵ Nazionalismo txinoarentzako Rikardo nahikoa ulerkorra da beti: HL 156, 170, 176.

menderaturik. Orduan gure borroka ez da planteatzen ahal gizarte maila. Eta bai herri menderatuaren neurrian” (RA 15).

Txina-SESB konfliktuan Rikardo behatzaile eta analista bezala distantziatik ageri zaigu. Bestelakoxe zirrara kolpea eman dio, haatik, bihotzondoan, Varsoviako Ituneko tropen TXEKOSLOBAKIAko inbasioak (68ko abuztua). Ez da bakarrik hartz sobietar handiak nazio txiki libre-nahia ukaldi harropuz batekin lurrean zanpatu duelako indignazioa. Aurpegi humanoko sozialismo baten itxaropen berria berriro, eta nola!, burlatua ikusteko desengainu mingotsa da batez ere Rikardorena. Urte horretan, urtarrilean hasita, maiz idatzi du Rikardok Txekoslovakiaz. Inbasio aurrekoak eta ostekoak bi etapa garbi egiten du haren ikuspegian “sozialismo zahar” edo ortodoxoarentzat.

68ko maiatzak eta gainerako festak pasata, “Pragako Primadera” ezker berri baten esperantzarik loratsuena zen Europa osoan. 67a sozialismo sobietarraren, kritikoa baina, nahiko balorazio positiboa edukiz bukatu du Rikardok, bai haren erre realizazioa eta batez ere haren ahalbideena, oso itxarongarria iruditzen zitzaion eboluzio baten bururako. Errusiako iraultzaren 50. urteurrena zela eta, lehenago amets eta asmo hutsa izan zena, harrez gero “txarra, ona nahiz erdizkakoa, erre alitate bat da”, deklaratzan zuen Rikardok. Ia ez dago sozialismoaz proiektu hutsaz bezala hitzegiterik: orain erre alitate bat badago, zeri erre feritu ahala eta beharra dagoen, sozialismoaz mintzatzekotan. “Gaurko Sobietikoen Batasuna begiraturik uste dut behinere baino hobeto esan daitekeela «erre boluzio bat izan zen». Benetako erre boluzioa izan zelako eta erre boluzio hori ondo pasa delako. – Behar eta premia handienen garaiak pasa ondorenean gizonaren liberazio osotik urruti izatea erre boluziolari batentzat itzal eta gaitz oso handia da. Egia da liberalizazioa hasia dela eta ez dela kapitalistek uste duten bezalako. Bainan liberalizazio hori leunegia ote den-edo uste dugu. Batez ere bere burua erre boluziolarien paperean eta eginkizunean ikusten duenarentzat. Horregatik, zenbaitetan, sobietikoak defentsiban bizi direla dirudi” (HL 107-108). Balorazio modu eta kezka hauetxek dira Rikardok darabiltzanak, geroxeago hasi denean Txekoslovakiaiko mugimendu erre formistaz edo liberalizazio saioez interesatzen. (Ez dago ahazterik berau etzela “sozialismo sobietarra” besterik). Momentu batean ere ez da zalantzan jartzen sistema bera egiazko sozialista denik, beraz, funtsean zuzena eta “hobea” (kapitalista baino). Tatxatzen zaiona “behar haina eta behar bezala sozialista ez izatea” da (Ib., 162). Alegia, erre forma batzuk ekonomian hasi badira ere, are beharrago erre forma politikoak direla eta, partikularki, Alderdiarena. “Sozia-

lismoa ekonomiarentzat sistema baino zerbait gehiago da”¹⁶. Pare bat hil geroago tonu berdinean: “sozialismoa zer da, teknika bat herriak bere atzerapenetik ateratzeko, ala zerbait gehiago?” (Ib., 164). “Rebisioa egiteko ordua iritsi da”, bukatzen du Rikardok. “Gora rebisionistak!” izan da azkeneko artikulua, inbasio aurrean, Txekoslobakiari osoki eskainia, maiatzean.

Bitartean beste komunista batzuk ere –Polonian, Hungarian– higitzen hasiak dira. Mendebaleak (kapitalistak) harriturik ikusten du Ekialdean piztu den bizi berria. Profesioz antikomunismo itsuena praktikatzen duen prentsak berak laudorioz betetzen ditu komunista horiek: ezkututzen duena da, “herri erreboltatu horietako pentsalariak, estudianteak eta lengileak eskatzen dutena ez dela sozialismoa kentzea, sozialismo jatorrago bat jasotzea baizik”. Mugimendu horrek, ortodoxiaren kateak hausten ari direla, adierazten du, eta erabat pozgarria da hori Rikardorentzat. Pozgarria, txalogarria. “Gizarte arazoetan ortodoxiak, immobilismoa esan nahi du. Geldiera, burokrazia, kateak. Eskolastikoen erreinua” (Ib., 165). Mugimendurako ausardia berriarekin herrion abertzaletasuna ere indarberritu egin ei da. Baina horretan ere –interpretatzen du Rikardok– “oraingo erreboltatuek ez dute eskatzen nazioartekotasuna baztertzea, nazioartekotasunaren izenean saldu zitzaizen inperialismo merkea eta morrontza gordina baztertzea baizik” (Ib., 166)¹⁷. Beraz, erreforma prozesuak ez du bere jatorria eta iragana ukatzen, baizik gainditzen eta hobetzen, eta horrekintxe berresten eta bermatzen. Sozialismoa, azkenean, bere perfekziora doa.

¹⁶ “Ekonomian planteamendu berriak egiten hasiak dira. Partiduan eta gobernuan, ordea, lehengo agintari zaharrek jarraitzen zuten. Ez zen posible partidua giro horretan egonean gelditzea. Aldaketak egiteko moduak behin eta berriro adierazten digu zenbateraino dagoen apartatuta herriarengandik, populuaarengandik eta langileetatik. BAKAN batzuen arteko eztabaidak dirudite partiduaren borrokek. Eta gertaera honek demokrazia sozialistaren arazoa birplanteatzen du” (HL 162).

¹⁷ Sobiet Batasuna indartu beharrak “Estadu sozialisten politika eta ekonomia Sobieten Batasunaren funtzioan jarri izan dute” (HL 166); bestalde, bloke sozialistako Estatu guztientzat eredu ekonomiko sobietarra ezarri izana ere ez zen izan egokia, garapen industrial oso diferentek zeudenez gero Estatu batetik bestera (Txekoslobakia, esaterako, eremu industrialdu aurreratua zen sozialismoa nagusitu zenerako, Sobiet Batasun nekazariaren aldean, ik. Ib., 161); hori dena mediante, nazioartekotasunaren izenean “inperialismorik gogorrena saldu eta ezarri izandu dela taktikaren eta beharren izenean” salatzen du Rikardok. Marxismo ortodoxoan ugariak izaten ziren ezinbesteko beharizan historiko haietakoren baten antzera, horrela jazo izana nolabait ulergarria ikusten du, ikusi: “Izan dira kondizionamenduak horretara bultzatu duenak SESB, baina errealitate hori sozialismoaren espirituaren kontra doa” (Ib., 166).

Inbasioarekin analisi hau, edo esperantza hauek, pikutara joan dira denak. Handik hara, sozialismo sobietarraren kritika erabatekoa bihurtu da; korrupzio politikotzat hartzen da ortodoxia sobietarra; eta arestian komunistek edo ortodoxoek Euskal Herrian erabili ohi zituzten arrazoipideei (“euskal arazoa” subordinatuz), edo frankismoaren jokamoldeei, *isilpeko alusioz bete da Rikardoren testua*. “Ortodoxia hil bedi” izenburutua dator hain zuzen Rikardoren erreakzioa “sobietarren agresio nazkanteari” (Ib., 289). Bi puntu iruditzen zait nabarmentzea merezia, hilabeteak iraun duen erreakzio honetan: nazio arazoa biluz-biluz planteatu beharra nahitaezkotsua ageri da apika, gertatuak gertatuta (1); baina, gertakariei arrazoi orokor bat aurkitzeko bere joeran, Rikardok inbasioaren inguruan hain zuzen sustraikoena bezala “sistema itxien” problema deskubritzea (2), itxarongabeagoa dateke. *Berau da, baina, Rikardok lehen-lehen momentutik gehien erakusten duen arreta*. Badirudi esan nahi duela: aspaldi hil zen garai batean bizi gara; iragan labrotsuan galdutako historia baten fantasma erratuak. Hilda behar zuketzen izpiritu zaharrak berpiztu dira mundu guztian. Mendebal nahiz Ekialdean kontserbatoreitsuak altxatzen ari dira nagusi, bakoitza bere sistemaren barruan itsu. Brezneven aliatu hoberenak mendebaleko erreakzionarietak dira, eta vice versa (Ib., 290)¹⁸. “Hil bitez, beraz, ortodoxia guztiak. Horiek dira gizona katigatzen dutenak, horiek desarrazoirik handienak egiten diuztenak, gizona eta herriak zapaltzen dituztenak” (Ib., 290)... Inbasioaren ondoren berehalaxe inprobisaturiko kezkaon jarraipena, osoki eta borobilago, kasi monografiko, astebete geroago Bilboko Anaitasunan idatzi du, nazio arazoa ere gogoetaren barneratuz orain: “Unibertsalista jatorra izateko, ez duela inork bere herriaren nortasunetik ihes egin behar, esaten da. Unibertsalismoaren izenean ere herria ukatzen duena, ez da ezer, ez unibertsalista, ez inongo. Askotarikoa izateko, pluralista alegia, ez da eklektikoa izan behar, usterik gabekoa, uste guztiak nahastutzen dituen. Zenbat eta euskaldunago izan, unibertsalistago naizen modura, zenbat eta iritzi sakonagoak izan, hainbat eta pluralistago izateko posibilitatea dut. Kondizio bakar batekin, hetsia ez izatekotan. Neure barruan hesten baldin banaiz, neurea baino ikusten ez baldin badut, neurekoia baino ez naiz izango.– Errealitateak erakusten digu-

¹⁸ Ik. halaberean HL 172: “Stalinismoaren erasoaldia kontserbadoreen erasoaldiarekin bat dator. Biak baitira berdinak, elkar lagundu eta defenditzen dira. Espiritu zaharraren, hil behar duenaren, erasoaldia da”. Eliza ongi antolatu bat bihurtua dago sozialismo ortodoxoa (Ib., 172)

nez, mundu pluralista batean, mundu askotariko batean bizi gara. Gizonak progresatzen goazela esan nahi du horrek, besterik ez. Gizonak edegia izaten ikasten duenean bakarrik, besteengana heltzen ikasten duenean bakarrik da posible gizarte askotariko bat. Baina hemen ere, beste gauza batzuetan bezala, errealitate berri honek ez du esan nahi osterantzeko errealitateen heriotza. Batasunak uniformitatea esan nahi ez duen bezala, gizarte askotarikoak ere, ez du esan nahi iritzien uniformitatea. Hori gizatasunaren heriotza litzateke, gezurrezko pluralismoa” (Ib., 291-292).

Beharbada “bitxitasun” honek merezi du aparte notatxo bat: Rikardoren pentsamenduan, izan ere, edo haren analisi eta kritiken kapitulu-rik inportanteenetan behintzat, errepikatu egiten den zerbait baita. Mundu iraganean lohizundu batean egoteko inpresioa. (Beraz, mundu berri baten grina). Katolizismoa bere dogmatismo zaharretan preso beti; euskalgintza (abertzaletasuna) iragan denboren mitologia desfasatuetan beti; sozialismoa... Mundu zahar hori dena desegin eta berria eraikitzea izango da belaunaldi berri librearen egitekoa. Ikusmolde orokor honek osatzen du markua gero problema bakoitzaren planteamendurako.

Nazio eta internazio arazoa bistan da bloke sozialista barruko Estatu batzuek bestea inbaditzearekin ezin grabeago planteatzen zela. Blokearen estabilitatearen eta sozialismo internazionalaren interes orokorren aitzakia inbasioa justifikatzeko (Estatu sozialista bakoitzaren subiranía mugatuaren “Breznev Doktrina”), inperialismo sobietar gordin-gordin hutsa iruditu zaio Rikardori. “Sobietarrek Txekoslovakia inbasioa prestatzerakoan komunismoan ezer guti pentsatu izan bazuten, ez zuten horrelakorik egingo. Baina nabarmenegi ageri da sobietarrentzat horrek ez duela batere ardurarik. Bere horientzat ardura merezi duen errealitate bakarra Errusia dela” (Ib., 169). Atzerri politikan inperialista, barne politikan diktatura, Francoren antzeko manipulazio eta amarru zikinekin (Ik. 170-171, 294). Beraz, galderak azkenean saihestezina dirudi: kontsidera al daiteke sozialista eta sozialismo internazionalaren lantza punta oraindik halako Estatu bat? “Ez al da ordua Sobieten Batasuna potentzia bezala ikusteko. Bada garaia noski. Horixe da bere jokabidea. Hori egiteen neurria. Egite horiek sozialistek esan zutenaren kontra doazela? Beti izango dira exegetak testu sakratuak beharren neurrian interpretatuko dituztenak. Jakina da edozein libururi, edozein esani nahi den gutzia esanarazteko modua badagoela, esperientziak irakasten duenez” (Ib., 171). Teoria sozialista ere ez da ja sozialista hortaz. Zer geratzen da? Ezer ez “sozialismo zaharretik”. Berria sortu behar.

Rikardok badu bi saio, bien artean inbasioarekin, ideiak ez bada ere, erreferentziak eta tonua franko diferenteekin. 1967ko “Sozialismo abstraktua”k, kritiken batzuei erantzunez (Txillardegiren kritikei zalantza gabe), onartzen du, badagoela sozialismo “abstraktu” bat, nazioen errealitateari jaramonik egin nahi ez diona, naziotasuna ahazten duena, eta internazionalismo aitzakiaz kolonialismoa egiten duena. Solamente, sozial-demokratak eta “laboratorioko sozialismoa” asmatzen dabilzan Frantziako klub sozialista batzuk dira holako gaiztoak, eta, lehenago, stalinismoa. “Izan ere stalinismoaren garaian komunista batek ez zekien garbi Errusiaren interes konketuak defenditzen zituen ala nazioarteko sozialismoarenak. Desestalinizatzearen ondorenean hasi zen hartzen flexibilitatea „komunismoa” (Ib., 159). Beraz, orain, desestalinizatuak dirudigu, langileen eta sozialisten batasuna da eguneko lehen agindua eta horrek posiblea dirudi ez klasearen batasuna eta ez nazioaren interesa bigarren mailara sakrifikatu beharrik eduki gabe. “Naziotasuna lehendabizi, nazioartekotasuna gero? Nazioartekotasuna guzien gain? Ez bata eta ez bestea (...). Nazioartekotasuna eta naziotasuna problemaren bi datuak dira, indibidua eta gizartea bezalaxe. Datu batek bestea zapaltzea ez da problemari soluzioa bilatzea, bi datuak kontuan harturik erabaki behar baita problema. Nazioartekotasunak naziotasunik gabe ez du sentidurik sozialista batentzat. Ez eta ere, nazioartekozalea ez den naziotasunak. – Lehendabizi bata eta gero bestea planteatzean dago arriskua. Dialektikak dio bien artean egin behar dela. Klasearen batasunetik kanpo pentsatutako naziotasuna ez da sozialista izango. Ez eta ere klasearen batasunaren izenean naziotasuna baztertzen duena. Badakigu batzuek klasearen batasunaren izenean inperialismoa ezkututzen dutela. Naziotasunaren izenean –Kroaziaz gogoratu gaitezen– zer ez dira ezkutatu, ordea?” (Ib., 159-160). Bera jabetzen da, hori amets bat dela, “zaila, ilun samarra, gaurkoz” gainera. Dena dela, aspirazio hori da berak aldarrikatzeko daukan guttia kontu honetan kritiken ostean ere.

Inbasioak ez du apurtuko aspirazioa, baina “Utikan engainamenduko naziokeriak”, urtebete justu geroago idatziak, abertzaletasun “sustantziarik gabekoaren” manipulazioa salatzen duenean, zerbait ikaragarria egiten du ortodoxiarentzat: kapitalistak eta sozialista sobierrak berdin-berdin beren abertzaletasunaren manipulazioaren moduan. Bientzat aberriak eta abertzaletasunak beren taktikako eta demagogiako instrumentuak baizik ez dira. Biontzat aberriak/abertzaletasunak ez dute edukin propiorik: kapitalistek han beren interesak barruratzen dituzte, eta sobietarrek gauza berbera egiten dutela kontatzen du orain

Rikardok luze-zabal (Ib., 224-226). Kontrolatzen ez duten abertzaletasuna “burges tipizat” kondentatzen dute (“musika ezaguna egiten zaigu noski hau”); eta abertzaletasun horixe berbera sozialista jator deklaritzen dizute geroxeago, komeni bazaie. Eskuin zein ezker zaharrok aberriak eta abertzaletasunak manipulazio tresna bezala soil ezagutzen dituzte. Batean zein bestean “herria” kontzeptu funtsgabea da bera, barrutik hutsa, edukina bestelako interes batzuek ematen diotena. Azken emaitzan gauza bera da abertzaletasunarekin biek dagitena: “abertzaletasun folklorikoa, jendearen engainamendurako” bihurtu. “Abertzaletasuna da, beraz, gauzarik errazena demagogia egiteko. Eta, zoritxarrez gehiegitan, menderatzaileek eta nazioaren zapaltzaileek azaleko gauza bakan batzuekin herriak engainatzen dituzte” (Ib., 226).

Beraz, sozialismotik ere ez dago nazio arazoa pentsatzerik: lehenengo sozialismoa pentsatu, alegia, eta handik nazio arazoa gero.

Hasiera-hasieratik biak batera sintesian pentsatzean dago aukera bakarra: eremu edo forman borroka abertzailea edukin sozialistaz. “Ez da horregatik harritzekoa munduan zehar abertzale gazteak radikaltzea eta askatasuna eskatzearekin batera zer askatasun klase nahi den galdetzea, eta bata bestea gabe ezin konprenitu ahal izatea. Vietnameko abertzaleek ez dute askatasuna amerikano okupatzaileengandik bakarrik eskatzen, baita vietnamdar burges traidoreengandik ere. Horregatik askatutako Vietnam batean ez dute lekurik izango burges kolonialista kolaboratzaile horiek” (Ib.). (Euskal Herrian pentsatuz idatzia ote du hori?)¹⁹...

Zer da euskalduna izatea?

“Zer da euskaldun izatea? Zergatik euskaldun izaten jarraitu?...” (RA 171)²⁰. Rikardok pentsamendu berri bat bilatzen du. Oinarriak bilatzen dizkizu, hobeto, pentsamendu berri baterako. Izan ere, “euskaldun izatea gero eta zailagoa” zaigu, eta euskaldun izatea zertan datzan ere

¹⁹ G. Arestik (1966) euskal burgesiari “surtara botatzeko gai” zerizkion: eta burgesak, agintzen zuen, “gure artetik edokiak eta atereak izanen dira, ahotik agin ustel baten moduan gure artetik kendu, jaurtiki eta expulsatu egingen ditugu. Hori garbi dago”, ik. *Literatur lanak*, X. bol., Susa 1986, 90.

²⁰ Ohartu eta ohartarazi beharra dago hemendik aurrera gehien-gehienbat Rikardoren testu berak argitaratu gabekoez baliatuko garela; hitzaldietarako bere eskuizkribu JAKI-Nek postumo argitaratuz (RA 171 ss eta HL 306 ss): testuon balio autentikoa (behin-behineko testu batena beti!) segurutzat har daiteke halere.

geroz eta gutxiago dakigu (Ib., 176, 179)²¹. Zer da Euskal Herria? Rikardok lehen-lehenengo galderetara itzuli nahi du. Oin-oineko harrian jarri. Horretarako ideologia heredatuak erantzi eta lehen datu biluzietatik, aurriritzi eta hipoteka gabe, nahi du abiatu lana. a) Formalki, Euskal Herria zer den, historikoa izan behar du erantzunak, “esentzialismoak” oro ekidinez. Euskal Herria ez da ente metafisikorik. Eta metodikoki, b) kontzeptu basikoenetatik eta garbi-garbietatik, ideologikoki ahalik lastatu gabekoenetatik, hasi beharko du.

Euskaldunak gara, hori errealitatea da. Historikoki –errealitatean jarraitzeko– euskalduntasun kontzientzia “herri kontzientzia” da (ez “nazio kontzientzia”)²²; euskalgintza, hortaz, herrigintza” izanen da: errebindikazio edo proiektu “nazionalistarik” ez da ezertarako aipatzen. “Beraz, Euskal Herriaz mintzatzean, ez dut aipatuko ez nazio bat, ez Estatu bat, ezta gainontzekorik ere. «Herria», neretzat, hau da: kondizio, geografia eta historia berdinean sentitzen diren pertsonen osatutako elkarte. Bereizkuntza honek badu arrazoirik: «Euskal Herria» hitz hau «nazio» hitza sortu aurretik ere erabili izan dute euskaldunek. «Nazioa» hitz eta ideia modernu bat da, Frantziako Erreboluzioarekin batera sortua. Eta XIX. gizaldiaren hasieran, eta askozaz lehenago ere, euskaldunek ezagutzen zuten beren arteko elkartasun hau, Euskal Herria bezala ezagutu ere. Euskaldunak ez dira askotan Estatu berdinetan bizi izan; hala ere bazuten euskaldun guztiek batasun bat, nolabaiteko batasunaren kontzientzia” (Ib., 182; 186 orobat). Rikardo nazionalismotik (“abertzaletasuna” esan ohi du berak) ihesi dabil. Eta agian, berak asko uste gabe, garai hartako topiko batzuk, edo konplexuak, beldurrak, “ezker” baten dogmatikari zor zitzaizkionak, ez daude absente, oinarrien bilaketaren bere oinarrian. (Rikardo ere bere garaikoa). Dena dela, horiek apenas egiten dute oztoporik bere gogoetaren bidean.

Ni zerk egiten nau ni hauxe, euskaldun bezala? hainbat faktore dago geografiako, historiako, etab. Oraingoz garrantzizkoa guretzat

²¹ “Orain, puntu honetan, euskalduna izatea zer den ez dakit. Bukaeran ere ez dut oraindik jakingo, euskalduntza egiteko bat dela ikusiko dugulako...” (HL 321). “Beharbada ez dakigu ziur-ziur euskaldun izatea zertan dagoen; sentitu, ordea, sentitzen dugu «guzizaten jarraitzea gero eta zailagoa zaiguna...” (RA 176). “Guk euskalduna zer den definitu behar bagenu, apuro handi batean aurkituko ginake segurasko” (Ib., 186).

²² Izan bekigu zilegi berriro aipatzea G. ARESTI, op. cit., 99: “Los vascos, en nuestra lengua «euskaldunes» nos hemos llamado a nosotros mismos, y a nuestro pueblo, a nuestra comunidad, le hemos llamado «Euskalerrria», por lo menos hasta que, tan influidos por la mentalidad latina, se ha introducido el concepto de patria o de nación para sustituir al secular de pueblo o etnia...”

zera da: euskaldun egiten nauen hori dela gizon hauxe egiten nauena, hots, "gizon izatea eta euskaldun izatea ez dira bi gauza diferente, gauza berdinak dira. Nik ezin dezaket nere baitan dibisio bat egin: hemendik honeraino euskaldun, eta handik haraino gizon; nere gizon izateko modua euskaldun izatea da. Ni euskaldun naizela esaterakoan nere gizon izateko modu konkretua nolakoa den adierazten dut: gorputzaren aldetik, geografiaren aldetik, gauza guztien aldetik. Beraz, hori ez da guk aukeratzen dugun zerbait, gure kondizionamentua baikiz²³, gure gizon izateko modua" (Ib., 182)²⁴.

Badirudi hemen, euskalduntasuna zer den ulertzeko, Eszila eta Karibdis arteko ur zirritu meharrean asmatu beharra daukagula kontzeptua nabigatzen: ala akzidental eta bostaxolako erdeinagarri hutsa da euskalduntasuna, orduan erabili den terminologia ezin traketsagoan (ezin metafisikoagoan) esateko, ala esentziala da eta historia gabeko eternalki aldaezina. "Izan ere azken aldi honetan gure artean «euskal esentziaren» arazoa dabil hamaika eztabaida sortuarazten. Ez da inor hain mokoloa euskal esentzia bat badela esateraino iristen denik, eta arrazoi dute horiek esentzialismoaren akusazioa entzuten dutenean ez dutela horrelakorik esan diotenean. Baina argi argian esentzialista denik ia ageri ez bada, postura horretara abiadura duena bada. Bada bestaldetik hutsera abiadura duen postura bat. Hauentzat dena aldakorra denez, berdin da bata ala bestea, gizonaren kondizionamenduak alkanndorak bezala alda daitezke" (HL 329-330).

Zalantza gabe Rikardoren ekarri pertsonalena eta mardulena "esentzialismoaren" kritikaren bidetik doa (abertzaletasun tradizional guztia sartuko luke berak hor). Baina arriskuaz ongi akordatu baita euskalduntasuna soil-soil kontzientziara, eta subjektibismo hutsera hortaz, edo zerbait historikotara, eta erlatibismo hutsera ondorioz, murrizteko arrisku hur-hurrekoaz²⁵, euskalduntasunaren kontzeptuari objektibitate eta solidotasun piska bat ziurtatzeko ere egin du bere partea (ik. HL

²³ Ik. HL 327: Euskaldun zertarako? "Neronek ere nere baitan horrelako mila kezka izan ditut (...). [Geroago] badirela galdera hori egiteko modu desegokiak ikusi dut. Galdera hori egiterakoan badirela gizatiar ez diren gainezkatu beharreko kondizionamendu batzuk jabetu naiz" (Ik. Ib., 329 ere).

²⁴ Garrantzizkoa: "Modu hau, ordea, ez da itxia; irikia da, osatzen joan behar duena, ebo-luzio bat bizi behar duena. Eta honetan euskaldunok arrisku haundiak ditugula aitortu behar dugu" (RA 182).

²⁵ Eta, buruenean, euskal arazo guztia "burgesiaren inbentu" soiltara mozteko, garai hartan entzun ahal izaten zenez.

320-326)²⁶. Koherenteki, objektibitate eta solidotasun hauek ezingo dute kontzientziaren papera eta historikotasuna ukatu, horien aurka joan, eta esentzia metafisiko higiezin baten tankera hartu, denboratik eta kulturaren eboluziotik kanpo. Halere, askotan ibiltzen gara terminologiaren esklabu, Rikardoren esposizioa beharbada ez da zehatzegia azken finean, “terminologia barbaro” baten katibu. (Ideiak hobeak dira terminoak baino halere). Halatan, bada: euskalduntasuna “kondizionamentu bat dela ikusiko dugu eta ez esentzia bat. Kondizionamentu hori nerretzat *esentziala* izango da (!), hortik bakarrik has dezakedalako nere egitekoa, gizontzea, gizonagotzea, betetzen” (Ib., 321). Alegia, ni zirkunstantzia konkretu batzuen kondizionamentuarekin ageri naiz existentzian nahitaez: gurasoak eta, non eta noiz batzuk alegia, labor esateko. Geografia eta historia²⁷. Holako baldintza jakinetan sortua naiz, horiek ez nituen nik ipini, ezpada horiek dira nik orain (edo:guk) mundu honetan ezer ipini edo kendu ahal izateko ezinbesteko abiapuntua (“kondizionamentu esentziala”)²⁸. Horrek ez du esan nahi, ni izan nindekeena eta izan behar dudana itxita dagoela, egina dagoela (“esentzia bat dela”), eta nire egiteko gutzia eredu horixe errepikatzea

²⁶ Esan beharra dago, esplikagaitza iruditzen zaidala testu horretan (fragmento dagoela ahaztu gabe!), euskalduntasunaren elementu objektibo bezala inoiz ez egotea kontsideratuta euskara. Lehentxeago Txillardegirekin Arragoako komunistek erabili zuten “esentzialismoaren” polemikaren kariaz? Cfr. EREÑO, M., “El solipsismo lingüístico en el ensayo «Izkuntza ta Pentsakera» de Tillardegi”, *Arragoa* 6-7 (1967) 5-32. Etorकिन arazoari soluzio bat bilatzen ziolako ere izan liteke, ikusiko da hori geroxeago.

²⁷ Geografia edo lurra, inguratzen nauen mundu materiala, nire pentsamenduan erabiliko ditudan kontzeptu eta irudi guztientzat gaia emango didana, etab., giza lanak eraldatua eta humanizatua da: nire aurreko hazaldien (herriaren) presentzia bat eta historia bat gordetzen du hortaz, horien jarraipeneko ikusten dut nik neure burua geografia giza-tiartu horretan. “Gainera gizarte batean bizitzerakoan geografia honen irudi bat ematen digu gizarteak (...). Irudimen hori batek gero bazter lezake, baina baztertu arren ezin ditzake bere urratsak ahantz eta desegin” (HL 323). Historian, Rikardok harrigarri oraingoxetar ohartu duenez, gertari historikoak berak baino garrantzikoagoa da haien zer irakurketa egiten den, horrek ezartzen baitu de fakto nola iristen zaidan historia niregana, h. d., etengabeko “mitogintza” historiko aldakorra. “(...) Ni *bau* egiten nauen historian, inportanteagoak dira usteak errealitateak baino. Euskal historiak baino Euskal Herriaren egitean gain herriak duen usteak askoz ere pisu handiagoa du. Eta uste hori da neri iristen zaidana...” (HL 323). Usteaz, agintearen botereaz eta biziera sozialaren ordenuz, ikustekoa orobat Pat 52-54.

²⁸ “Ezin nindeke nere gizatasuna izateratzean abstraktuan hasi. Horregatik, nerretzat, gizatasunaren aldetik, *euskaldun zertarako?* sentidurik gabeko galdera da. Zail edo erraz, nere gizoneratu beharrean, naizenetik hasi behar dut, euskaldun izatetik. Izan ere lurra eta historiaren aldetik nere zirkunstanzietan bizi denari euskalduna deitzen zaio” (HL 328).

eta kunplitzea izango dela. Euskalduntasuna ez indibidualki eta ez kolektiboki da ezer behin betiko sorra. Baina aldian aldian zer den eta izan daitekeen ere ez da arbitraria, kondizionamentu haietatik egongo da egon. Laburbilki: “Euskal Herria izeneko leku geografiko batean bizitzeak, bertan oraina ez ezik geroa ere izateko asmoa izateak, bertako kondizionamenduz inguratuta eta zeratuta bizitzeak, egiten ditu bertako biztanleak “euskaldun.” (Ib., 330).

Beste puntu bat, norbanakoaren eta taldearen (herriaren) erlaziora: “Euskaldun izateak nere indibiduotasuna gainezkutzen du eta euskaldunkiderik gabe ez du sentidurik. Euskaldun izatea, euskaldunartea, hots, gizarte era konkretu bat gabe ez da ezer” (Ib., 321). Baina gai hau jorrazteko asmoa bazuen ere, landu gabe geratu den kapitulua da Rikardoren proiektuan²⁹. Hainbeste esan genezake, halere, haren pentsamenduz: banakoa herrian ulertzen da; herria den elkartasuna “batez ere kondizio berdinak, material berdinak, geografia eta historia berdinak osatu dute: herri guztiek, pertsonak bezala, badute memoria bat; eta memoria bat berdina izateak egin eta egiten gaitu herri bat” (RA 181-182)³⁰. Nola konpontzen da memoria batasun hori klaseen arteko leize eta etsaigoarekin?, etc.etc., gustora jakin nahiko genituzke Rikardoren esplikazio zehatzak, ea berak nola pentsatzen zituen klasea eta herria ez bata aurreneko eta bestea bigarren, baizik kontzeptu berbatean biak, baina heriotzak haren erantzunik gabe utzi gintuen betiko.

Landuagoa, esan bezala, nahiz berau ere bukatu gabe, abertzaletasun tradizionalaren kritikako parte da, euskaldun izatearen kontzeptu “esentzialista” alegia, hori Rikardoren moldean izendatzeko³¹. Iraganaren mitifikazio, baserriaren idealizazio, eta antzeko balorazioekin batera agertzen da ia beti haren luman esentzialisismoaren aipua, gero berriro ikuskatu beharra izango baitugu hortaz, euskal historiari eta XIX. mendeaz iharduterakoan³². Orain, eta hasteko, hauxe izan daiteke seinialagarri: ene ustez, termino psikopatologikoetan tratatzen duen

²⁹ Ik. HL 321 (“Datorren kapituluan ikusiko dugu gizartearekikotasuna nitasunean dagoela, ni ez naiz gizartean ez banaiz”). Ik. Ib., 305, kapituluaren iragarpena. Indibiduo/talde gaiaz ik. baita ere Pat 38-41, 63 eta hur., 98.

³⁰ “(...) Gure benetakoa historia eta gure oroimen kolektiboa ez baitira gauza berdinak. Oroimen kolektiboa, garai bakoitzean, gogoramenerako gauza batzuek gordez eta besteak baztertuz osatu baita” (RA 165).

³¹ “Ezin etsi – Euskal arazoei buruz entsegu batzuk” izenburutu den proiektuak, “Euskal Herriaren irudi bukolikoa” eta “JELen hil beharra” bezalako kapituluak agintzen zituen, gero idatzi ez direnak.

³² Cfr. RA 118-119, 165 (72-73); HL 276-278, 330-331.

arazo bakarria dizu hau Rikardok³³, eta tonu mingots partikularki zauziorrean gainera, ez dakit arrazoia. Esentzialismoa, patologikoa konzeptua (eta hor barnebiltzen den euskaltzaletasun eta abertzaletasun tradizional guztia), egoera historiko mingarri gaizki asumitu bategatik, kontzientzia gaixo batek egin historiaren mitifikazio faltsu batena da espresioa. “Euskal Herriak –euskaldunarteak– ez du bere izatea erabat izateratu, ezta gutiago ere; horregatik frustratutako herri bat da. Eta bere historia guretzat zenbat eta gertuagoa izan, orduan eta gutiago izateratua ikusiko da Euskal Herriaren izaerari berari dagokion bezala. Euskal historian zenbat eta atzerago jo eta osatuagoak azalduko dira euskaldunen egiteak. Gutienean hori dirudi, garai haietan ez baitzen arrotzen aldetik hainbesteko menperatasunik Euskal Herriari eta, honegatik, bere izaera zabaldu eta osatzeko mugak naturalezarenak gehiago ziren besterenak baino. Euskal arazoetaz zaletuta eta kezkatuta dabilenarentzat euskal izatearen referentziarik osatuena iragandako garaian aurkitzen da, zenbat eta urrutiragokoetan, orduan eta osatuagoa. Bestaldetik azkeneko berrehun urte hauetan gure izaera gero eta problematikoagoa izan denez gero, erakzio modura lehenari begiratzen has-tea eta lehenean amesten jardutea [sortu da]. Hortik lehengo hori dela benetako euskal izatea esatera pauso bat besterik ez dago, eta, aurrera jarraituz, hori dela benetako euskal izate *bakarria* sinestatzerara oraindik gutiago. Hori egia zen euskaltzaletasuna «lege-zaharraren» edo «tradizioaren» garaian bizi zenean. Eta orain ere, zenbaitetan, egia izaten jarraitzen du” (HL 330-331).

Berak iruzkintzen du testu honek nahikoa bere burua:

NARZISOAK

“Joera eta jokabide bakoitzak bere barnean humanismo baten proiektua darama. Era batekoak edo besteak, bakoitzak gizonaren eta gizartearen gain konzeptzio berezi batzuk ditu. Euskaltzaletasunak ere berea izan du. Eta pasatutako gauza dela diot gaurkoz, bi euskaltzaletasun diren bezala, bi humanismo direla esan daitekeelako.

Narziso, mitologiak dioenez, bere burua putzu batean reflejaturik ikusi zuenean oso ederra iruditu zitzaiolako luzaroan putzura begira gelditu zen, baina halako batean putzuan ito egin zen. Psikologiak dioenez narzismoa gaitz bat da. Nahiz eta

³³ “Psikologiaren mintzamoldetik hartutako hitz batez esateko, joera honen izaera «fizioan» dagoela esan daiteke”, etab. (HL 330).

denok narzisistatik zerbait izan, bat batean narzisista denak munduari, besteari, libertateari bildur diola adierazten du eta horregatik, bestearen libertatearekin, munduaren errealitatearekin ausartzen ez delako bere buruaz kupitzen da, bere buruaz enamoratzen. Hori da ahalezinaren seinalerik handiena. Narzisistak besteari eta munduari bildur diolako ez du ezer sortzeko ahalik, ahalezinean itotzen da.

Oraintsu arteko, eta oraingo joera bateko, euskaltzaletasunari honelako zerbait gertatu zaio. XIX. gizaldiaz geroztik Euskal Herriak eta euskaltzaletasunak garai txarrak pasa dituzte, garai txar horietatik [datorkio?] Euskal Herriari –eta Euskal Herria gu gara– gaurko gaitz hilkorra. Edozein gaixo da guti gorabehera narzisista, gaixoa baita lehendabizi bere buruaz kupitzen dena.

Gaitz horren aurrean euskaltzaletasun batek narzisista izatea erabaki du; horregatik beregan daramakien humanismo proiektua narzisista da, hau da, gaixoa, makala, eskasa. Lehendabizikoz *euskal arimaren esentzia* sortu du. Hori mito bat da, errealitatearekin zer ikusirik ez duen abstrakzio bat besterik ez da. Gizonaren arimak, jeneralean, izan lezake esentzia bat, baina herri batzuek ez ordea. Herri baten arima esentziaz ez da deus ere, historiaren zirkunstantzia bakoitzean diferentea baita. Une bakoitzeko gizartearen –ekonomiaren, legearen, etab.– kondizionamentuak eta kondizionamentu horretan bizi diren gizonak egiten dute herri bat honelako edo bestelakoa. Nigan gizon izatea da esentzia eta euskaldun izatea kontingentzia, gizon izatea sustraia eta euskaldun izatea gizon izateko «modua». Horregatik nigan ezin ditzaket berez gizon izatea eta euskaldun izatea, bestelakotzearen, alienazioaren, seinalerik garbiena litzateke. Baina euskaldun bezala nere gizon izatea osatu beharrak, nere gizona-gotzean niganaino iristen den historia ezin dezakedala ahaztu besterik ez du esan nahi. Eguneroko dinamikak esango dit hori ondoen nola bete. Eta historiaren kondizionamentua ni gizon euskaldun bezala izatea –nahi dugun indartsuena izanda ere–, beti izango da kontingentea eta aldakorra. Gizonaren esentzia ez, ordea. Eta kondizionamentu hori ahaztea nere burua engainatzea, bestelakotzea, alienatzea litzatekeelako, ezin dezaket euskaldun izaera utz.

Baina euskaltzaletasunak euskal izaeraren esentzia batean sinetsi du. Euskaldun izatea moderatu izatea, berez patxaratsua, zintzoa (hau da, libertatearekin arriskurik ez hartzea), zuzena

(hau da, betikoa izatea), berez ona, ahalik eta katolikoena (meza nagusira joanez gero hobe), lehenari begira bizi dena, etab.etab. izatea zen eta da batzuentzat. Oso irudi bukolikoa. Irudi hontaz enamoratuta bizi da euskaltzaletasun hori. Uste dutenez, superioridadezko konplejua dute, eta aldrebes da, inferioridadezko konplejua dute. Horregatik bizi dira ghettoan, defensiban, ahalezinean. Horregatik diote beldur aldaketari, ez aldaketa teknikoari, pentsamenduarenari baizik. Euskaldun izaeraren irudi bat egin dute eta hortaz enamoratuak bizi dira. Horregatik dira narzisistak, psikopatak eta... ahalezindutenak, inpotenteak. Ez baita beroriengan gaitzaren aurrean rebeldia eginkorra jaiotzen. Ahulak izatea aukeratu dute, bere buruaz kupidatzea eta ez borroka egitea³⁴.

Zorionez, ordea, gaur egun, euskaltzaileen batasuna mito bat besterik ez da. Batasun ideologikoan behinipehin. Gaur egun, *euskal humanismoa* esatea ez da nahikoa, atzetik beste adjetibu bat jartzea beharrezkoa da. Eta adjetibu berri hori jarri beharrak adierazten du ondoen zerbait berria eta inportantea sortu dela euskal kulturaren barruan” (HL 275-277).

Zor intimoren batzuen kitapen antzeko testu hau, zaharren eta berrien kontrajarpen gogorrago ezin horrekin, 1966ko martxokoa da.

Gehi dezadan, autokritika moduko bat edo egin duela geroago, hil baino egun batzuk lehenagokotzat jotzen den testu (argitaragabe) batean: “Aspalditxo batean, Oteizaren «Quosque tandem...!» liburua irakurri ondoren, «esentzialismo» hitza aipatuz itxiko nuen, eta kito. Egun, berriz, hori egin aurretik aztertzen saiatuko nintzake, zenbait puntutan ados ez izan arren” (RA 164).

Zer da euskalgintza? (Etorkinen arazoa)

Ez naiz gizaki bat besterik, mundu guztia bezalaxe: ni hemen “euskaldunaren moduan” naizela bakarrik, bakoitza izaten den bezala bere moduan gizakia. Beraz, euskalgintza ere ezin izango da gizagintzaren modu bat besterik.

Hasiera gizon-emakumea da. Horrek izan behar du beti neurria ere: “Gauza guztien neurri gizonak behar du izan; gizatasunaren alde doana onartu behar du, eta gizatasunaren kontra doana baztertu” (Ib., 181).

³⁴ Konpara 1967ko testuekin euskaltzaletasun berriaren errebeldiaz, RA 70 eta hur. (“gaiteria berria”).

Zer egin? “Nik *ni* izan behar dut, ni euskaldun hau naiz, bizi naizen gaurko Euskal Herrian hori gero eta zailagoa da, ordea” (HL 326). Alegia, bizi naizen lur honetan eta historia honetan da geroz eta zailagoa; eta XIX. mendeaz gero gutxienez da egunero zailagoa... Kondizionamentu hauetatik, h. d., hemengo errealitatetik hasi behar dut. “Nere gizatasuna *egiteko* bat da, ez, ordea, *egiteko* abstraktu bat, gizatasun hori abstraktua ez den bezala. Egiteko konkretu bat denez gero hemen eta orain egitekoa da. Hau bezala eta ez bestea bezala. Hemengoak, bertako geografiarekin, historiarekin, ekonomiarekin eta gorabehera guztiekin baldintzatua delako ez du aukerarik. Baldintzatua ez du nolana hiko kondizionamentua adierazten, elbi bat aurpegitik uxatzen den bezala alderaz daitekeena, ni *hau* egiten nauena bezalakoa baizik, nere izanean datzana” (Ib., 327).

Zeintzuk gara hemengoak?

Edozeintzuk ere, gizon-emakumeak gara denok eta inor ez gehiago, inor ez gutxiago. Has gaitezen, beraz, gizakia zer den galderarekin.

Rikardok, galdera horri erantzuteko, antropogenesi bat bezalakoa marrazten digu (Teilhard inportantea izan da belaunaldi honen mundu ikuskeran), halabehar itsuaren (naturaren) erreinutik, gorabidean, kontzientziara: libertatera hortaz, historiara, gizakiarengana³⁵. Naturaren legea eboluzioa da. Mailaz maila, naturak ekoitzi dituen produktuak, beherenak dira egingenak, gorenak egingabeko eta egitekodunenak: “Harri bat bere izatearen hasiera hasieratik eginga dago, behin betiko bada. Landare bat, ordea, ez dago erabat eginga hasiera hasieratik, bere bizitza barruan hazitzen, gero eta gehiago izaten, gero eta landareago izaten, egiten, doa, osatzen. Gizona, berriz, bere hasieran izatedun tipiena da. Oraindik ez da erabat gizona, gero eta gizonagotzen joan beharko du, eta ez du, oraingoz, erabat banaiz esaterik ahal izango. Horretan ez du landarearekin diferentziarik, baina *gizonak badaki oraindak ez dela erabat*, egingen behar bat dela” (Ib., 308). Gizakia naturatik dator, baina handik etenez: berak bere burua egin behar izatekoa, egin du naturak; eta, beraz, nolakoa egin berak ikusi eta erabaki beharrekoa. Gizakiak bere izaera bere eskuetan dauka. Hobeto esan: gauza bezala, natura bezala, halabeharraren legepean dago; kontzientzia bezala bera da bere buruaren jabe eta erantzule eta egile. Hori, ordea,

³⁵ “Zergatik ni neronek izatea da problema? (...). Erantzun ahal izateko derrigorrez historiaren baitan sartu beharra dugu. Historiarik ez da esnatzen, ordea, gizona izaten uzten ez den bitartean, gizonaren jaiotza eta historiaren jaiotza gertaera bat eta berdina direlako. Halabehar hutsa ez da etetzen kontzientzia sortzen ez den bitartean” (HL 307).

ez da bi, baina bat, barru-barruan kontraesanarekin hain zuzen. “Abereak bezala instintuak baditu, eta bizitzen jarraitu ahal izateko hauek beharrezkoak ditu, baina ez ditu nahikoa. Derrigorretik eta halabeharretik ihes egiten duelako gauzak produzitzen ditu, tresnak naturaleza menderatzeko eta hizkuntza beste gizonekin hitzegin eta elkar bizi ahal izateko. Hori da gizonaren izaera osatzen duten bi kontradizioetako bat, abereak bezala instintoak izatea, baina bizitzen jarraitu ahal izateko, derrigorren legetetik ihes egin ahal izateko, tresnak eta hizkuntza eskuratu behar ditu. Horiek gabe ez dauka bizitzerik, heriotza datorkio” (Ib., 310).

Tresnak aldatu egiten dira denboran zehar, hizkuntzak ezberdinak dira herririk herri: orduan, ez dago gizakirik, giza batasunik, dena diferentzia eta aniztasuna da? “Gizon izaeraren muina historiaren epe bakoitzean diferentea baldin bada, zirkunstantzien produktu hutsa baldin bada, ez daukagu gizatiar izateaz mintzatzerik, erlatibotasun hutsan geldituko litzateke guztia” (Ib.). Gizatasun edo gizaki guztien batasun hori kontzientzian ikusten du Rikardok (eta, beraz, kontzientziak hemen besterik signifikatu beharra lizuke, tresnak moldatu eta gizarte bizitza, hizkuntzarekin, balio sistema etiko eta juridiko batzuekin, etab., antolatzeako gaitasun soila baino): “Tresna eta hizkuntza sortu beharra baldin bada giza-izaeraren zera bat, bestea kontzientzia da. Abereak duten sentiduko ezagueraz gainera konkretutik abstraktiora pasatzen den adimena du, bere buruaren kontzientzia du. Eta hau da gizon izaeraren kontradizioa eta esentzia” (Ib.)³⁶.

Esentzialki kontraesana den gizaki hori, hor daukagu orain bakardadean ikaratuta. Bere buruarekin izututa. “Oraindik erabat osatua ez dagoenez gero, oraindik ez da” (Ib., 311). Ez daki non dagoen, ezer ez

³⁶ Beharbada bi kontraesanen berezkuntza ez dago oso garbi formulatua, baina Rikardoren helburua bai, uste dut garbi dagoela funtsean: kontraesan batek gizakiaren historikotasuna esplikatzen behar du (“tresnagilea/hiztuna”), besteak askotariko historia ezberdin guzti horren/horien subjektuaren bat/berdintasuna, berdintasunean halere eboluzioa eta historia ukatzeke (“kontzientzia”). RA 172-173 esplikazioan kontradizio bakarra aipatzen da (natura/kontzientzia): “Gizona, ordea, kontradizio handi bat da; eta kontradizio horretan dago gizonaren izaera (...). Zertan dago, bada, gizonaren kontradizioa? Gizona, alde batetik, animalia da; hau da, naturalezako gauza bat. Naturaleza denez, naturalezako legepean dago, naturalezak agintzen dio era batera edo bestera jokatzeko. Naturalezak ematen dizkio instintoak; ez hiltzeko instintoa, esate baterako. Baina, eta honetan dago kontradizioa, kontzientziaren bitartez gizonak gainekatu egiten du naturaleza”. Ib., 173-174: “Gizona, alde batetik, naturalezak egiten du; beste aldetik, ordea, berak egiten du bere burua”.

da, izatera bidean doa norabait, bere izatea berak egin beharrean. Gizaki bere burugile honen larria deskribatzeko, existentzialismoak lagundu diona erraz ikusten da. Susmoa hartzen diot, haatik, Moderniaren (askatasunaren) aurrean ikaratu den Euskal Herri bat, edo euskaltzaletasun bat, idarokitzea ere bilatzen duela Rikardok "primitiboaren" deskribapen honekin: "Oraindik ez izate honek beldurra ematen dio eta hori da askatasunari, libertateari beldur izatea. Horregatik da beldurgarria libertatea. Ezerezarekin, oraindik ez izatearekin enfrentatzea, hutsunę hori gizatasunez betetzeko; hara, libertatearen iturria. Gizonak, gizaldiak esan nahi dut, berebiziko borroka darama bere izatearen hasiera hasieratik bere bakartasunaren, bere libertatearen axoladun, responsable, egiteko. Bere baitan darama berriro naturalezara bihurtzeko, bueltatzeko gogoia. Horrela ez luke gehiago borroka egin beharrik izango, ez luke bere izaera eten gabean izateratu beharko, erabat izango litzateke, ez gehiago egitekorik, eginkizunik. Historiaren lehen-dabiziko garaietan berriro lurrera, ama lurrera, bueltatu nahi honek jazten eta kondizionatzen ditu gizonak osatzen dituen gizaeren aurreneko pausoak. Odola, lurra, naturaleza izango dira garai hauetan bakardadearen eta bakartasunaren beldurrean gizonak jasoko dituen jainkoak. Bere historiaren eboluzioarekin, ordea, gizonak bere bakardade eta bakartasunak ematen dion handitasun eta nagusitasunarekin bizitzen ikasiko du" (Ib., 311-312).

Bere izaera den kontradizioaren, eta ezartzen dion eginkizunaren aurrean, gizakiak bi aukera du: atzera egin, "gauza" izatera itzuli, hala-beharraren erreinura (arriskurik eta beldurrik ez orduan); edo kontraesanari buru egin eta aurrera irten, norbere izaera garatu.

Atzera bueltatzearekin despersonalizatzen duen guztia ulertu behar da, bereziki kultura moderno kontsumista, masifikatua, ideologia, moda eta gizakiak lau-lautzeko tresneria guztiarekin, beren kontradizioa ahazterazten diena eta konformismoan loakartu. Baina kultura hori ez da beste gabe horrelakoxea (hemen agertzen dira klaseak). Naturari buruz-buru eta elkarren aurrez-zurre gizakien artean sortu diferentziek, gizaki batzuek besteak natura eta gauzatzat hartzea eragin dute, eta haiek ahaleginak egitea besteok halakoxe gauza eta naturaren egoeran lotu eta iraunarazteko. "Gizon batek bestea ezin lezake menperatu, esplotatu, hau gauza bezala ikusten ez bada. Gutxi batzuek askoren jabetasuna izateko derrigorrezkoa da hauek gauzak bezala erabili ahal izatea. Horretarako hauen batasuna sendotzen duten moldeak [legitimu sozialak] ez dute balio eta xede horretarako aproposak jarri

behar dira³⁷. Molde horiek gizonaren eginkizunak [produktuak] dira, historiaren nolabaiteko halabeharrak” (Ib., 214).

“Abantaila” bat hemen bere desabantailengatixe omen dizu euskaldunak: alegia, printzipioz kontzientziarentzat hobaria, de fakto kulturaren eta gizartearen jasan beharra izaten duen atsekabea. Izan ere, kontraesan bada gizakiaren esentzia eta kontzientziaren piztailea, kontzientzia zerk piztu franko badu euskaldunak, bizi den bezala kontraesan artean josita biziz goizetik gabea. Euskalduna bere niaren eta inguruaren artean –“ofiziala” den ingurumari guztiaren– desegoñitasun etengabea bizi baita. Hots, edozein hiritarren kasua den baino askoz gehiago eta erradikalkiago. “Abestu, irakurri, hitzegin, zinemara joan, propaganda begiratu, telebista ikusi, irratia entzun, lan egin, jolastu, maitatu, ikasi, estudiatu, hazi, erakutsi, etab. etab.” (Ib., 315), gure egiteko ia guztiak egunaren barruan, nire ukoa den kultura arrotz batean ari zaizkit inguratzeko, menperatzeko. Eta arrotza esatean ez da ulertu behar erdalduna bakarrik³⁸, eta bai nire interesak ez diren eta gizatiarrak ere ez diren irizpideez disketxe komertzialek, editoreek, enpresariak, etab. etab., eta Estatuak, eskolak, ozioak, h. d., kultura ofizialak, sistemak, nire bizigiro guztian eraikitzen duen unibertsoaren arrotzatasuna: beraiek problema gabe funtzionatzeko ni problema gabeko bihurtzea interesatzen zaienen botereak jasotzen eta gotortzen duen kultura. “Gauza” eta ez pertsona bezala nahi nautenak³⁹, eta ni gauza horixe bihurtzeko xedez muntatzen duten kultura.

Rikardo formulazio egoki bila zebilen oraindik ideia hauentzat. Libururako eskuizkribuan baino hitzaldietako bere apunteetan behar bada zuzenago adierazten ditu. “Jazteko modua, dantza egiteko modua, jolas egiteko modua, jateko modua, lan egiteko modua... ezarri egiten zaizkigu; ez ditugu guk egiten (Ib., 177). “Guk ikasten dugunak

³⁷ [Jabego pribatuzko egitura ekonomiko-sozialak, agintari/aginpeko egitura politikoak, apaiz/sinestun egitura erlijiosoak, eskolatu/eskolagabe kulturalak, etab.]

³⁸ Hori ere bai noski! “Beraz, zergatik euskaldun izaten jarraitu? (...). Alde batetik, gure gizarteak erdal-izaera bat jarri nahi digu. Jarri nahi digunez gero, ia ezin dezakegu onartu: guk erabakitakoa ez, guri jartzen digutena baizik delako; gure gizatasunaren kontra doalako” (RA 179-180). Hau ez da euskararen aldeko arrazoi bakarra Rikardoren argumentazioan: beste arrazoiak, positiboki, gure gizaki konkretu izan beharrean dago (ik. Ib., 181 eta hurr.).

³⁹ “Hori da gaurko gizarteak egiten diguna: gure askatasuna gauza bihurtu. – Guk gure burua egiteko dugun aukera hori kentzen digutenez geroztik, gauza bihurtzen ari gara. Izan ere, hori sistemaren logikan dago: bakoitzak bere nortasuna, bere izaera, osorik gordeko balu, ez legoke gizona manejatzerik; komeni, ordea, gizona numerota bezala manejatu ahal izatea komeni da” (RA 179).

gizon izateko era bat darama oinarritzat, modelu bezala ezartzen diguten era: gizon erdalduna, erderaz dakiena; baketsua, sukalde eta etxebizitza onen jabe dena; batere builarik gabe bizi behar duena; «amen» eta «amen» esaten ikasi behar duena... Honelako gizona da gaurko gizarteak begien aurrean jartzen diguna. Horrexegatik ezin dezakegu onar. Hau da lehenbiziko erantzuna⁴⁰: garenak izaten jarraitzea; gure konkretutasuna, «gu», «ni» izatea ezin dezake inork utz bere soinekoa uzten duen bezala: bere gizon izatea utziko bailuke batbatean” (RA 180). Euskaldunaren etsai bat, bere burua pertsona bezala osatzeko, kultura ofiziala edo sistema baldin bada –esan dezagun: “Espainia modernoa”–, guztien berdintasun mekanikoa bilaketan (eta hori erdaraz egiten da)⁴¹, beste etsai bat euskalduna bera izan liteke asko moduz, bere buruaren (euskalduntasunaren) kontzeptu oker batengatik –esan dezagun: “abertzaletasun tradizionala”–: izan ere honek euskalduna izatea zerbait itxi eta egin eta iraganekotzat hartzen du, eta aspaldiko eredu haren egungo kopia izatera behartu nahi gaitu, osoki geu izan eta geure nortasuna garatu orde. “(...) Askotan, gehienetan aspalditxotik, zera uste izan dugu: euskaldunon proiektua, euskal gizonaren eginkizuna, lehengo euskaldunen gizon izateko modua berpiztea, egun hauetaraztea zela. Benetako euskaldun izatea baserritar jator izatea zela uste genuen; antzinako gizon izateko modura bihurtu nahi genuen. Baina, jakina, hori ere gizatasunaren kontra doa: nik ez dut inork egingako zerbait berriz egin behar, besteak izan diren modura nik ere izan behar: nik neure eginkizuna bilatu behar dut, neure kondizionamentu konkretuek eskatzen didatena. – Gure eginkizuna gure burua osatzea bada, ezin dezakegu onar joera hori, lehengo gizona berpiztea” (Ib., 183). Arrazoi nagusia ez da iraganekoa izatea, gizatasun itxi baten kontzeptua inplikatzeko baino (iraganekoa izateak argudio gehitu bat areago emango luke). “Gizonak ez du bere izatean itxi behar; orain arte esan dudanean nahiko garbi gelditu da guzti hau: gizona izate irekia, bukatu gabea eta, bere bizitza zehar, osotasun bat egiten joan behar duena dela” (Ib., 180).

⁴⁰ “Zergatik euskaldun izaten jarraitu?” zioen galderak.

⁴¹ “Ez dakit zuek sentitzen duzuen, baina hau ikusarazi nahi nizueke batez ere: gure gizatasunaren benetako iturria, benetako askatasuna, zenbateraino itotzen digun gaurko gizarteak, alegia. Ez digu gizon izaten uzten, gauza egiten gaitu: denoi iritzi berdinak, jatzera berdinak, joera berdinak jarri nahi dizkigu. Pentsatu orain normalidarearen kriterioa nolakoa den, gizon normala zein den. Konforme dagoena! Eta gizon anormala, konforme ez dagoena” (RA 179).

Abertzaletasun tradizionalak, egungo euskalduna euskalduntasun txar batera hertsatzeaz gain, bigarren akats hau dizu: “Euskaldun izatea ia erabat zehaztutako eta egindako zerbeit dela pentsatzen badugu, ez gara emigrazioak planteatzen digun problematika entenditzeko eta, are gutxiago, soluzionatzeko gauza izango” (Ib., 184). Gizatasuna eginkizun eta eginbehar bezala ulertuz bakarrik “eman genezaioke aurre etorkinei eta etorritakoek planteatzen duten problematikari” (Ib.).

Gizon-emakumea (eta, beraz, euskalduna), izaera irekia bai, ez da halere absolutuki irekia, aingeru bat, inolako lotura gabekoa naturarekin eta historiarekin, materiarekin⁴². “Behin ere ezin dezake ahantz bere izate konkretua zer den: bere gorputza, bere historia, bere gizarteko kondizionamentua daramazkiela” (Ib., 180). Egia da berak erabaki behar duela, zer izan nahi duen, nolakoa nahi duen bere nortasuna. Baina ez dauka bere eskura edozer gauza bilakatu ahal izatea. “Gizona eginkizun hutsa dela uste izatea erru handi bat da. Bere burua nola nahi duen absolutuki erabakitzerik ez du gizonak: hasiera eta frontera batzuk baititu” (Ib., 175). Hau bestainbeste, Rikardok behin eta berriz mailukatzen duen abisua da. Zein ote da eragon horren destinataria? Izpirituaren eta irekitasunaren errebindikazioa (indibiduoaren autonomiarena, progresarena, etc.) abertzaletasun tradizionalaren aurka orientatzen bada, askatasun eta garapiderako erroen, mugen, baldinkizunen azpimarra, hots, gorputzarena (familia, sexu, tribu) edo inoren nongotasunarena, herriarena, herri horren memoriarena, hizkuntzarena, inguru geografikoarekin antzinadanik lotu duen ahaidetasunarena, etc., sozialismo tradizionalaren aurka doala suposatzeak itxurazkoa ematen du (berak “marxismo primario” eta “marxismo ortodoxo” kontsideratzen dituenak)⁴³. Nolanahi ere: “Euskaldun izateak zera esan nahi du: gure kondizionamentuak, gure konkretutasunak ezartzen digun modua gure eginbehar dinamikoarekin bat eginik daramatzagula” (Ib., 184). Ez gara inoiz huts-hutsetik hasten, historiako momentu jakin batetik aurrera baizik; eta ez ni bakar-bakarrik isolatuta, baina inguruko gizartearekin batean. Ni ez naiz ni-pipita hauxe bakarrik: “ezin nezake ahantz non bizi naizen, nongoa naizen, zein lagun ditudan, ze lan egiten dudan” (Ib., 175). Nire buruegintzak hemen, hemengoekin, abiatu beharra du.

⁴² “Gizona egin beharreko eginkizun bat bada, ez da egin behar egiteko absolutu bat, hasiera eta muga batzuk ditu-eta. Ni ezin ninteke edozein gauza izan; nik badut era batekoa edo beste erakoa izateko aukera bat, eta ez erabat era batekoa edo bestekoa izateko. Nik ez daukat absolutuan edozein gauza aukeraterik, behartua nago nire hasierak kontuan hartzera” (RA 185).

⁴³ RA 165.

Baina, zeintzuk gara hemengoak? Gauzok historiko eta dinamikoki ulertu beharra dagoela, esan dugunez gero, zer esango genuke dela gaur Euskal Herria, nor edo zer iritziko dugu euskalduna?

Askotan eztabaidatzen ditugunak dira kontuok, forma batean ala bestean, eta gehienetan akordatu ere egin gabe, solasean darabiltzagun berbak eta kontzeptuak desfasatuta geraturik daudela hizkuntzan bertan, auzi horiek egoki samar tratatzeko. Mundua nahastu baino lehena-goko kontzeptuekin nahi dugula nahasmendua deskribatu. Etortzen da langile bat Sevillatik Andoaina eta euskalduna da; joaten da gipuzkoar bat Sevillara eta sekula ez da izango andaluza kontsideratua. Zer signifkatzten dute gauza hauek? Eta askotan haserretu izan gara: zergatik ez da berdin-berdin galdetzen zer den Espainia edo Frantzia, zer den espainola eta frantsesa? Non dira horien esentziak? Eta galdera batzuk batzuei bakarrik, eta justifikazio bazuk batzuei bakarrik eskatzea (beti txiki, marginatu, "anormalei")⁴⁴, truko politiko zaharra dela, egia da, segurua (boterea) bere segurantzia tutuluan gordetzeko beti finko eta insegurua beti bere insegurantzia larrian koloka edukitzeko. Baina guri ez digu axola. Horietek dira kontzientzia erne edukitzera behartzen duten kontraesanak. Horregatik ohartu genion guk aspaldi aldeurreko datu sinpleenetako horri, tajuz eztabaidatu ahal izateko kontzeptu egokirik ere eskuetan ez edukitzeari. Horregatik hasi behar izan zuen Arana Goirik Euskadi eta antzeko terminoak asmatzen, arrazoi guztiarekin. Baina errazena Arana Goriri burla egitea dela, ikusten dugu, terminologia piska bat akklaratzearren zerbait egin ordez. Berriro erdararen arrazoiak erdaraz Euskal Herria euskarazko izena inposatzen du, ez erdaraz eta ez euskaraz horrela sentidorik duena. Eta berezkuntza bat egiteko eta akklaratzeko balio ahal zuenak, nahasteko balio du berriro. Euskaldunak egon litezke Parisen edo Mexikon, baina Euskal Herria euskaldunon (E) komunitatea territorio bateko egoile gisa gara (H), lurraren eta tradizioaren atxekitasunak eransten duen guztiarekin elkar-tearen izaeran. Egungo Euskal Herria, ordea, ez da Leizarragaren homogeno, funtsean elebakarra, irla edo auzo linguistiko ez euskaldunen batzuk biltzen zituela. Lur honetako biztanleria gaur gehien-gehienki ez euskalduna da, eta Euskal Herria hemen gutxiengo batek setati osatzen jarraitzen dugun apur hori da, ez-Euskal Herri baten ozeanoan irla. Beste hori Euskadi, edo Nafarroa, edo Baskonia, edo

⁴⁴ Intsumituari eskatzen zaio arrazoa eta justifikazioa, zergatik ez, eta sekula ez juezari eta Estatuari, soldaduzka zergatik bai. A priori, agintzen dagoen ordenua arrazoa ere bada.

nahi dena izango da, baina ez da Euskal Herria. Euskal Herria gu gara eta gu bakarrik. Nola Arana Goirik egin zuen denak gaizki egon beharra duen, ordea, ondo egin zuenak ere ezin du balio. Moderniarekin gertatu da, gertatu, homogenitate kultural bat (esanahirik zabalenean, hizkuntzatik ekonomia etxetarreko elementuetaraino) lortua zuen gizarte nahiko mugikaitz batean, poliki-poliki elementu berri “arrotzak” sartzen joan direla, geroz eta arinago eta gehiago, uholde bat bilakatu arte. Hasieran beren arrotzasun markarekin sartu dira oraindik, eta gure etxeoandreen atarian indiantzarak eta indioiloak euskal antzara eta oilo jatorrek baino beste izena eraman dute, beren arrotzasuna erakusteko; baratzan geroz eta gehiago nahastu dira barazki indigenak (edo indigena usteak) indiaba eta indipiko edo frantses arbi eta porruekin. Mendian ere laster indigaztainak eta indimahatsak deskubritu dira, amerikalarrak eta frantziak. Eta portuetan, berehala, merkataria ez euskaldun eta ez jatorriz baskoak hasi dira ahaltsuak eta inportanteak bilakatzen. Garai batean, eta gizarte batean, basko/vasco (basque) hitza euskaldunaren itzulpen guttiz egokia izan bazen, geroz eta gehiago egongo dira basko ez euskaldunak eta ez indigenak, hemengo jendeak zein gauzak... Berbek beren forma zaharretan diraute, errealitatea guttiz formaz aldatzen ari den artean. Euskaraz halere gauzak garbi geratu dira, baskoekin zer jazoten ari zen axolarik gabe: eta, beharbada, euskaldunak zer sentitzen zuen berea eta zer arrotza bere aldirian, hor darabiltzan Erromak, Frantziak, Indiak eta Kaskoiniak, filologo gazteren batek langabezian ikertzeko gai entretenigarria izan daiteke. “Euskal” deritzona, oso garbi dago zer den. Arazoa erdaraz dago. Eta, euskaraz, erdaraz ere balio ahal izango lukeen gogoeta bat egin nahi badugu sortzen da arazoa, eta ez txikia. Hori gertatu zaio Rikardori.

Izan ere, egon den historia, gerra, industria eta nahaste guztiaren ostean, “hemengoak” –horiekin behar dudana nik orain nire nortasuna gauzatu– ez euskaldun eta ez basko bezala dago denak batera biltzerik. Hurbilketa bat entseiatzeko euskaldun zein den arazoari, “Euskal Herrian bizi dena” definizioarekin hasten bagara, gutxienez lau talde ongi berezi ateratzen zaizkigu: 1) euskaldunak, 2) Sabin Aranaren euskotarrak (baskoak), 3) etorkin langileak, 4) etorkin “agintearen zerbitzariak”... (RA 186-187, 189-191). Honez gero bistan da euskaldun zein galderak, edo sentidorik ez duela, edo sentido diferentea duela zein proiektu eta markotan galdera egiten den. Alegia, ea zein den galderaren zentzua, erantzunak diferentea izan beharko duela. Etnologo batentzat ez du demografo batentzako sentido bera edukiko. Rikardok sentido politikoan galdetu nahi du. Baina, horra, sentido politikoak

berak ez dirudi batere garbia, edo, gutxienez, oso erraz eduki lezake sentido aldakorra: Rikardok bere planteamenduan ez daki zein leku eman euskalduntasunean “agintearen zerbitzari” haiei...

Ondo pentsatuta: eginkizuna ez da kontzeptuak konpontzea, arazoa konpontzea baino. Arazoa, ez kontzeptuetan, errealitatean. Horretarako, analisia ekintza baten eta proiektu baten zerbitzuan planteatu beharra dago, kontzeptuek haren sentidoa izan dezaten.

Eta ondo ikusita orain (bere proiektuaren begiekin)⁴⁵ bi talde handi ateratzen zaio: “batetik, lehendik historia berdina dugunok eta, bestetik, oraingoa eta gerokoa berdina izan dezakegunok” (Ib., 187). Hone-tarako hizkuntzaren (euskararen) inportantzia ere euskalduntasunaren elementu bezala desagertu egin da: euskaldunak eta euskotarrak bateratzen dituen “historia berdina izatea, oroimen kolektibo hori berdina izatea” da (Ib., 188-189). Guztiok bat egiten dugu. Burgesen batzuek ere ez ote dute parte hartzen historia eta oroimen horretan? Beharbada etnologia mailan bai. Baina horiek –politikoki– borreroak dira, hurrengo taldea biktima den historian: etorkinak, eta horrela proiektu elkartu horren posibilitatetik kanpo ezartzen dituzte beren buruak⁴⁶... Beraz, hau nazio eta klase proiektu bat da batera, agindu bezalaxe.

Inmigranteek ere badizute beren “kondizionamentua”, objekta genezake: Galiziako, Estremadurako, Gaztelako herriska baten kondizionamentu propioa. Han hasi zuten beren buruaren gizagintza. Baina, hain zuzen, erantzuten digu Rikardok, “leku horietan ezarritako sistemak, ezarritako gizarteak, gizon izateko posibilitaterik eskaintzen ez zielako” alderraitu ziren eta gizon-emakume izateko posibilitate bila honera etorri. Hain zuzen, pertsonaren garapide lasairako zaindu beharrekoa den kondizionamentu hori apurtu egin zaienak dira horiek. Horiei buruz

⁴⁵ Erabakitakotzat dago proiektu honetan aldearez burgesiak ez interesik eta ez zereginik duela euskal arazoaren konponbidean: nolabait inmigrantea euskalduntzat hartzearen prezioa da burgesia ez hartzea euskalduntzat (proiektukotzat).

⁴⁶ Euskaldunak izango lirateke, euskalduna izatea iraganeko zerbaiten oroimena *bakarrik* balitz, baina ez historikotasun jarraitu eta gerodun batean kontsideratuta. Inmigrantea “iraganaldi euskaldun” gabekoa bezalatsu, burgesia hori “geroaldi euskaldun” gabekoa litzateke, beraz ez euskalduna oraintxe, berak bakarrik euskalduntasunaren oraingo sentidoa egin/desegin dezakeen ekintza edo prozesu baten markuan. Etnologo batentzat izan liteke euskalduna, hortaz; politikoki haren euskalduntasunak ez du sentidorik, berdin zero da. Ordea ez da berdin gertatzen baseritar edo langile euskaldun erabat apolitiko batekin (kontzientzia politiko gabekoarekin). Hau, biharko Euskal Herri berriari begira, datu positibo bat da (burges hura ez bezala). Arazoa ez dago, beraz, kontzientzia indibidual mailan, proiektu batean “objektiboki” zein leku edukitzean baik. Honela ulertzen dut Rikardo.

Marxen esaldi famatua gogoratzen du: “Langileek ez dute aberririk. Ijito batzuek soro batean daudenean, nork dio soro horretakoak direnik?...” (Ib., 191). Horiek jada ez dira estremeinoa, galegoa, gaztelaua, beren bihotzetan sorterriko oroipenik asko gorde badezakete ere, eta berak bizi ziren gizartean ikasitako hala-moduzko ohiturak eta erreglak badi-tuzte ere. Orain bizi diren eta beren pertsona gauzatzeko daukaten herrian, mendia Buruntza eta Ernio da, edo Artxanda eta Gorbea; eta mendi horiek beren ipuinak dituzte, beren esanahi humanoa, beren memoria, eta mendi eta erreka eta txori hauen geografian beharko dute burutu beren gizagintza hemendik aurrera; eta hemengo herri honen historiako ibaian beharko dute beraiek ere sartu modu batera ala bestera... Hemengoak dira, ez dira beste inongoak⁴⁷.

Azkenik, zerk bateratzen ditu zinez hiru euskaldun suerteok (euskalduna, euskotarra, etorkina)? Labur-labur esateko: beren madarika-zioak⁴⁸.

Moderniak “leku gabe” utzi ditu denak. Arrazoi ezberdinengatik baina patu berdinarekin: “bai euskaldunok, hau da, hemengo jatorria dugunok, bai etorkinak, ezarritako sistemaren gaitzarekin arkitzen garelara gure gizagintzarako” (Ib., 195)⁴⁹. Historikoki pentsatuz, ordea, gizakia eginkizun den bezala, ez bukatua, zerbait egin beharrekoa bai-zik, hala gizartea ere: eta hori, gizarte berria, “ez al dugu gizon izateko posibilitaterik ez dugun guztion artean egin beharrekoa?” (Ib.).

Euskalgintzaren zentzua iraultzan eta mundu-berrigintzan dago. Eta hemen hartzen du, Rikardoren planteamenduan, leku zentrala euska-

⁴⁷ Ik. ideia hauen formulazioa in HL 328-329: “Euskal Herrian bizi direnak bitan banatuko ditut. Batzuek oraina eta lehena dute berdina, besteek oraina bakarrik. Hauek beste lehen bat dakarte berekin. Lehendabizikoei deitu izan zaie euskaldunak eta bigarren-goei kanpotiarrak. Oraina berdina izatea eta zirkunstantzia berdinetan bizitzeak ere euskaldun egiten dituztela denak uste dut, ordea, ez baitago pentsatzerik jendetza nolanañi baztertu daitekeenik eta ahal izanda ere gizatasunaren eta justiziaren aldetik egin daitekeenik. Euskal Herria izeneko leku geografiko batean bizitzeak, bertan oraina ezezik geroa ere izateko asmoa izateak, bertako kondizionamentuaz inguratuta eta zeratuta bizitzeak egiten ditu bertako biztanleak «euskaldun». Zera horiek egiten dute Euskal Herria geografiaren izen batetik Euskal Herria gizonen bilduma baten izena”.

⁴⁸ Ik. “Kulturgintzako planteamendu berriak” kapitulua, “Kulturgintzaren filosofia berri bat” azpiatala.

⁴⁹ Izan ere, gure gizatasuna ukatzen digun gizarte honek proposatu eta ezarri egiten digu nolakoak izan, eta, jakina, horrekin askatasuna kentzen digu hemen bizi garen guztioi. Badugu, beraz, kideetasun bat hemen bizi garenon artean, bai euskaraz egiten dugunon artean eta bai gizarte honetan gizon izateko posibilitaterik ez dugunon artean” (HL 195).

rak. Ez antzinako pitxi misteriotsua delako, etab., baizik etorkizunaren egile horietako batzuentzat behar-beharrezkoa delako beren identitatearen, nortasunaren garapide ireki baterako, gizarte berrian euskarak mintzaira arrunta izan beharko du, hots, euskaldunak euskaraz osoki libre moldatu ahal izan beharko du. Honek bi eskakizun du, bat neuri (ene euskara indartzeko neure nortasunaren garatzaile gisa), bestea gizarte osoari. 1) "Horrexegatik bada, gure gizagintza, geren buruen osaketan, garenetik hasi behar dugunez –eta euskaldunak⁵⁰ gara gu-euskaraz egitean egongo da" (Ib., 193)⁵¹. Eta, 2) "nik nire burua euskaldun bezala, euskaradun bezala osatu behar badut, derrigorrezkoa dut giroa euskara-dun izan dadin" (Ib.). Hemen dator, gero hainbeste aldiz aipatu izan den frasa: "Derrigorrezkoa dugu, eta barka hitzaren gogorra, euskara dugunok inperialistak izan beharra" (Ib.). Horren adiera ez duzu hauxe besterik: "Gizarte guztia, hau da, Euskal Herri osoa, euskaradun [izatera] iritxi dadin arte ezin esan genezake euskararen problema konpondu dugunik: korriente kontra ibiliko gara bitartean, itotzeko zorian. – Derrigorrezkoa dugu bai, beharrezkoa, gure gizagintza behar bezala burutzeko giro euskalduna dezagun. Ezinezkoa da, bestela, gure borroka; eta horretantxe jo behar du gure borroka" (Ib., 193-194)⁵².

Planteamendu hau onartuz gero, iraultzailea, gizarte berri baten eraikilea, euskarak, azkeneko, kapitalismoak eta kontsumo gizarte modernoak antonomasiaraz madarikatua balio sinbolikoa ere hartzen du: bera da "gertatzen ari zaigun gauza guztien neurririk hoberena"

⁵⁰ Hemen euskaradunaren esanahi estriktoan.

⁵¹ "Etorkinek guri herrigintza horretan hasiera ukatuko baligute, hori gure kondizionamendua ahaztutzea litzateke, eta gizatasunaren kontra liojoke. – Hauek beren eginkizunean inola ere ahaztu ez lezaketena zera da: badutela berak ere zera bat: hasiera bat, kondizionamendu bat, bai fisikoa, bai buruarekikoa, eta baita pentsamenduarekikoa ere. Baina honutz etortzerakoan, hemen lanean hasterakoan eta beren etorkizuna hemen planteatzerakoan, beste kondizionamendu batean, beste muga, beste karril batean sartzen dira. – Ez balira hortaz konturatuko beren gizatasunaren aurka jokatuko lukete. Hemengoan kontra jokatzekoan beren interesen kontra jokatuko lukete. Bai, beren interesen kontra. Zergatik hori? Era horretara jarrita dagoen sistemaren alde, ekonomiaren alde, gizartearen alde jokatuko luketelako" (RA 197).

⁵² "Nahi dutenei libre utzi behar zaie euskaraz mintzatzea" tesi pseudoliberal "tolerante"aren aurka doa gizarte berriaren beharrezko euskaraduntasunaren tesi hau (Euskal Herriko ezker tradizionalak tesi hura defendatzen zuten). Begira beste arrazoia ere: "Euskaldunok bizitzen jarraitu ahal izateko giroa behar dugu; giro hori tanta askorekin egiten da. Tanta batek bere burua giro horretatik ateratzea, besterik gabe, giro horretan bizi behar dutenen kontra jartzea da. Ez dago neutralidaderik. Neutralidadea, bere burua engainatzeko gezur bat besterik ez da" (HL 223).

(Ib., 193). Euskarak kontrakulturaren balioa du horrela, “Gaur egun asko da *kontsumoko zibilizazioaren* ondorio txarrez mintzatzen dena. Euskara da sistema horretan ez integratzeko garantiarik onena. Dakizuenez, gaur munduan marjinalak, ertzean baztertuak daudenak dira gizadiaren esperantza beren baitan daramatenak –beltzak, hirugarren mundua, estudianteak–; ba, gu ere, euskaraz mintzatzen garenek, bizi garen gizartean erabat marjinalak gara. Hori da gure indarra, gure izate hutsa delako, gizarte horren ukazioa baita, eta baita ere, zergatik ez esan, gure ahuldadea” (HL 223).

Zergatik euskararen alde? “Nire adiskide batek, ea zergatik euskararen alde –honek ezertarako balio ez eta– ahalegintzen den galdetzen diotenean, zera erantzuten du: «Horrexegatik, ezertarako balio ez due-lako». Eta egia handi bat aitortzen du hau erantzutean” (Ib., 234)⁵³. Izan ere, sistema ekonomikoak, non gu hortxe bizi gara, dena utilitaria bihurtu du, maitasuna, adiskidetasuna, jakintza, meditazioa: diruarekin neurtzen da zernahiren balioa. Gizakia gauza bihurtzen da sistema horretan. Euskara, “preziorik ez edukitzean”, probetxurik eta utilitaterik gabe, sistematik landa geratzen da, ez da merkantzia bat. “Sistema aldatu beharra dago, beste lojika bat eta beste neurri batzuk nahi baldin baditugu” (Ib., 235). Eta horixe egiten dugu, hain zuzen: euskararen aldeko borrokan sistematik at paratzen gara. Merkantzien eremutik landa, gizatasunaren esparruan.

Historia gizagintza da: euskal historiaren problema

Ez gara jaiotzen buztinzalearen eskutik anfora bezala egin-eginak eta bukatuak. Historia lantsu nekez bat da bakoitzaren norbera izatera iriste luzea, norbere gizagintza azkengabea. Baina gizadiaren historia orohar ere, bere gauzape osoagorantza doan gizatasunaren iharduna da, peregrinazioa: are, Rikardo irakurriz, natura bera, bere eboluzioan, gizatasuneraino goititzeko ahaleginetan aritu dela, pentsa liteke (RA 172-173). Gizakia, naturaren fruitu gorena eta eboluzioaren koroa, naturaren gainera irteten, kanpora, kontzientziara, askatasunera.

Askatasunaren eta kontzientziaren erreinuan gizona bere burua burutuz, “gizonagotuz”, nola doan, Rikardoren azalpena jarraituko

⁵³ Abenturatzan ausartuta, adiskide hori, Karlos Santamaria ez bada, Gabriel Aresti izan liteke (Rikardo Anaitasun ari da idazten), oroit harena, aip. lib., 201: “Zertarako euskaldun? Baina, gizonak, zergatik ezkutatu nahi dugu guztiok dakiguna? Ezertarako ez. EZERTARAKO EZ”.

dugu⁵⁴. Hasieran, gizakia munduan hasi denean, ez sua ez gorpila ezagutzen zuen. Milaka urtean ehizetik bizi izan da. Ez zuen etxerik eta lurrik, ehizaren atzetik zebilen batera eta bestera. Bigarren aroan, animalia batzuk mendean hartzen eta etxetiartzen ikasi du gizakiak, hezitzen, eta artzaina bilakatu da beste milaka urte batzuetarako. Nekazaritzako aroan, hirugarrena, abereez gain, lurra menderatzen eta laboratzen ikasten du, haziak biltzen eta ereiten, uzta jasotzen eta biltegitratzen. Laborari/nekazaria da orain. Azkenik, laugarren, lurpeko ondasun eta indar ezkutuak baliatzen ikasten du: baporea, ikatz indarra, argi indarra eta gainontzekoak, eta industriatutako gizakia bihurtu da. “Horretan baditugu gizonaren historiaren lau etapa hauek; etapa bakoitzak zibilizazio apropos batzuk sortzen ditu. Kultura apropos batzuk. Hau da: ehiztari izan denean, artzai izan denean, nekazari eta industriatu denean ez du gizonak berdin jokatu. Eta ez ditu lege eta ohitura berdinak izan. Beraz hazitze bakoitzarekin, gorputzaren hazitze bakoitzarekin, eta gizonak ehiztari izatetik artzai izatera, eta artzai izatetik nekazari izatera pauso bat ematen duenean, herria gorputzez hazi egin da, teknikaren aldetik aurreratuago aurkitzen da, eta espiritu aldetik ere berdin gertatzen da” (Ib., 200).

Gizakiaren historia gizagintzaren historia da. Euskaldunaren historia ere bai?

Aurreneko bi etapak desegokitasun gabe pasa zituen Euskal Herriak. (Artzain zibilizazio euskaldun jori baten froga edo erakuskari bezala Rikardok bertsolaritza alegatzen du)⁵⁵. Buruhausteak nekazaritzarekin sortu dira, modu bikoitzean: batetik, jabego pribatuaren instituzioa ezarri delako gizarte harremanen basean; bestetik, izpirituen eta kontzientzien kontrola kristautasunaren menpera sartu delako zibilizazio honetan. Halere industriarogan jazoa da euskal gizartearen porrot egiazkoa.

Sozialki, lurraren jabegoarekin klase borrokaren historia hasten da (“pentsa, esate baterako, gaur egun gizarte arazoetan propiedadearen kontzeptu hori dela borrokarik handiena”, Ib., 202). Bestalde, gizartearen egungo eraketa familiar eta sozialean erabakiorra izan dugu institu-

⁵⁴ Hitzaldietako materialekin jarraitzen dugu.

⁵⁵ “Bertsolariek gaur egun arte iraun dute, baina bertsolaritza teknikaren aldetik estudiantu dutenek bertsolaria, gizona artzai zeneko literatura, orduan egiten zen literatura dela alegia erakusten digute. Eta bertsolariak mundu guzian izan dira, ez Euskal Herrian bakarrik, Erroman, Grezian, leku guztietan. Zergatik? Gizona artzai izan zeneko literatura bertsolaritzak duelako” (RA 200).

zio hori. Artzaintzaroan lurraren beste jaberik ez zegoen baliatzaileen komuna baino, herri osoa: euskal foruan “badira oraindik lur komunalak, hau da, herri guztia artzain zeneko lurrak” (Ib.). “Baina nekazari bihurtzerakoan lurrarekin batean gelditzen da gizona, eta orduan sortzen dira etxeak; eta guk esan genezake euskal historia orduan hasten dela. Hortik datoz gure apelidu guztiak. Eta gure apelidu gehienak arbasoen lurren izena adierazten dute, gure aintzinakoen lehendabiziko lurren izenak, lehendabiziko etxea” (Ib., 202-203). Nor da hori galderari, halako etxetako erantzun ohi diogu, halako lekutakoa. Artzaintzaroan ezingo genukeen hori erantzun, artzainak ez zuelako leku jakinik bera non egoten zen, lekuan iraupen gabekoa zen. Iraunkortasuna lekuan –berdin apelidua– nekazaritzak ekarri du. “Eta orduan hasten da nolabait desegokitasun bat sortzen Euskal Herrian. Artzaintzaren ondorengo nekazaritza herriaren teknikaren aldetik oso aurrerapen handia da. Nekazari gizonak askozaz menderatuago dauka naturaleza artzaiak baino; artzaiak animaliak bakarrik menderatzen ditu, baina nekazaritzak badaki lurra landu eta bere menpean jartzen. Orain ez dago bere jatekoa kasualidadez aurkitu zai. Berak sorrarazi liezaioke lurrari. Pauso hori ematean, akaso lau edo bost gizaldi geroago, baina garai horretan, Euskal Herria kristau bihurtzen da. – Eta orduan desegokitasun handi bat sortzen da, beharbada ez gaur egunean ikusten diogun garrantzia handiarekin, baina lehenengoz orduan sortzen da” (Ib., 203).

Euskal Herriaren kristautzearen problematikotasuna era ezberdinean ikusi izan da: Baroja, Mirande, Salaverria, etab. (Barandiaranentzat eta, batere problemarik ez du suposatzen). Orain Rikardorena bakarrik interesatzen zaigu. Baroja eta Miranderentzat kristautasunak Euskal Herriari egindako kaltea moral arrotz bat txertatzea bada (autokontzientzia edo gizatasun arrotz bat), Rikardorentzat instituzio eta eredu sozial arrotzak da ezarri diona. Erromatarrentzat zibilizatua izatea eta hiritarra izatea berdina nola zen gogoratuz hasten da hau (Ib., 182). Ez hiritarra bas-erritarra zen, basoan bizi zena, inzibilizatua, barbaroa. Aldi berean hiri zibilizatua erromatartua edo latinizatua zen. Kulturako gizon-emakumea izatea, ondorioz, latina jakitea eta Erromako ohituretan bizitzea bezanbatsu. Kristautasun erromatarra guregana herriratzen denean, erromatartasun horrekin egin du. “Gure herrian, kristautzea sentidu horretan egin zen (...). Erromako Elizarentzat, kristau egitea eta latino egitea gauza berdinak ziren: kristauak egitean, latinoak egiten zituen... Euskal Herrian ere beste horrenbeste gertatu zen. – Honegatik, dibortzio gisako zerbait, desegokitasun bat agertzen da: gizonaren

eginkizun konkretuen eta orduko kristautasunarekin batera sortuko diren instituzioen artekoa, alegia. Hori dela-ta, modelu arrotz bat proposatuko diote euskal gizonari” (Ib., 183). Tamalez gai ezin interesgarriago hau –Euskal Herria historikoki nola joan den instituzio molde erromatar “kristauak” bereganatzen– ez du osokiago zabaldu eta konkretatu⁵⁶. Puntu batean izan ezik behintzat: kultura letratuarenean, edo Euskal Herrian sortu den bi geruza kulturalarenean, bat latinoa, goikoa eta nagusia, letratu, eta bestea euskalduna, herri zehearena, ahozkoa.

Erdi Aroan elizgizonak ziren jakintsuak, liburuak ezagutzen zituzten bakarrak. Noble eta gerlariak idazten etzekiten. Beraz, kultura eta letratu berdindu egin zen, eta letratu latinez ikasia zen edo latino bihurtu; “eta euskaraz jarraitzen zuen euskalduna, barbaroa, zibilizatu gabekoa izanen zen. Hona etorri ziren misiolariantzat euskalduna kristau eta latino bihurtzea gauza berdinak ziren. Ez zituzten diferentziatzen” (Ib., 204). Abio honekin halakoxea heldu da segizioa. “Harrez geroztik badakusgu horrelako jokaera bat Euskal Herrian. Euskal Herriko jakitunak erdaldunak izango dira... Badakizute latina zela jakintzaren hizkuntza. Orduan, latinetik sortuko dira Euskal Herriaren alboko hitz-kuntzak: frantsesa, galegoa, katalanoa, gaztelanoa, guztiak latinaren seme dira. Eta Euskal Herriko jakitunak, liburuetatik ikasiko dutena erdaraz ikasiko dute. Eta orduan, euskal jakitunen kultura ez da herriarena izango, eta berezkuntza bat sortuko da: batetik jakintsuak, kultura dutenak, Erromako kultura horretan sortuak izango dira, eta herria bes-tetik. Bai, garai berrietan sartua egongo da [herri hau], baina jakintsu horientzat beti atzeratuta egongo da” (Ib.). Herri hori zibilizatzeko, h. d., latinizatzeko, erdaraz ez zekiten ume euskaldunei kristautasuna irakasteko dotrinak latinez idatziko dira; apaizek erdaraz egiten zituzten beren sermoiak, gehien-gehienek erdaraz tutik ez jakin arren entzulegoan. “Izan ere haientzat, euskara eta euskal kultura, kultura basati eta atzeratua zen”, epaitzen du Rikardok Aita Larramendi gogoratuz (Ib.).

Historia gizagintza da: gorputzaren garapena, teknikoa, materiala; eta izpirituaren garapena, kulturala, instituzioena. Euskal Herriak bere historiako aro ezberdinetan egoki samar garatu ahal izan du gorputza; baina haren izpirituak ez du garapide zinezkorik aurkitu kristautu eta kultur nagusitasuna eredu arrotz baten esku utzi behar izan zuenez gero. Euskal Herriaren gorputza hazi da, haren izpiritua ez: kendu egin zaio bere izpiritua, zigortu, zanpatu.

⁵⁶ Beharbada eginkizun premiatsuagoa iruditu zaio Baroja-Miranderen gisako interpretazioei, edo halakoen ondorio jentilaire edo “paganisante” batzuei, aurre egitea (RA 163 ss) eta ez areago laguntzea.

Historia hori ez da euskaldunaren gizagintza historia: “Euskal Herriaren historia zehar, euskaldunak ez du behin ere euskaldun izateko egokitasun osorik izan” (Ib., 182).

Deskalabro handia XIX. mendeak ekarri du halere. “XIX. gizaldian bi gertaera garrantz ditugu Euskal Herrian. Alde batetik Euskal Herriak bere buruaren jabetasuna galtzea, eta bestetik Euskal Herriaren industrializatzea” (Ib., 205). Honekin gaurko geure aroan aurkitzen gara. Industriaroen.

XIX. mende gurutzeala

“Gorputzez, XIX. gizaldian handitzen da Euskal Herria, industriaren sartzearekin. – Baina izpirituz, lehen bezain txikerra gelditu zen”, laburbildu du Joan Mari Torrealdaik Rikardoren tesia (RA 29). Hondamendi politikoa eta gorakada ekonomikoa bata bestearen kausa-efektu bezala irakurtzerik ba ote legokeen, biziki jakinmintzen zuen Rikardo, baina ez da erabakitzen ausartu (Ib., 205)⁵⁷. Hori nolnahi izanik ere zehatz-mehatz, bata bestearen kausa, ala biak batera aurreragoko kausa nagusiagoren baten emaitza, Euskal Herriak bere buruaren jabetasun tradizionala galtzea (Foruen ezabaketa) eta Euskal Herriaren industrializatzea ez dira bata bestearengandik aparte gertatu, elkarrikusi handiarekin ageri dira biak beren artean.

Urtearen hasierako zenbakian jada JAKINen Zuzendaritzak⁵⁸ euskal historiaren berrirakurketa baten premia azaltzen zuen 1968an, ez “desmitifikazioen” modari (Pat 66, 120) jarraitzearen, baina bai zenbait topikozahar birrintzeko, Euskal Herrian oraintxe bizi dugun kinka hobeto ulertzeko xedez⁵⁹. Urte horretako azken zenbakia “Lehen Karlistada” monografikoa izan da, “hasiera bat izanzen delakoan”. Zenbaki horretan Rikardok J. Mugicaren zatitxo bat euskaratu du, Foruen borrokaren azpiko arrazoi ekonomikoak ageriratu, “Ekonomia tarteko zelarrik” tituluarekin, Karlistada horren interpretabide bat iradokiz alegia⁶⁰. Editorialak idazten duenez: “Gaurko Euskal Herriaren problematika ez

⁵⁷ Berehalaxe aipatzeko bere artikulua batean J. I. Lasak honela iritzia zion: “Aduanak itxas-portuetara aldatzeari erantsi nahi diote zenbaitek industriaren suspertze eta berpizte hau. Industri-bizitasun hau munduko giroak eta egoerak esplika dezaketela iruditzen zait, hala ere, neri”, ik. *Jakin* 33 (1968) 8.

⁵⁸ Ik. “Kulturgintzako planteamendu berriak” kapituluaren sarreran JAKINen Zuzendaritzako hirukoteaz urte horietan eta Rikardoren ikuskizunaz ohartzen dena.

⁵⁹ *Jakin* 29 (1968) 3-4.

⁶⁰ Ik. Rikardo bere eskutik interpretazio ekonomiko bera egiten in RA 116-117.

dago behar bezala ulertzerik gure hemeretzigarren gizaldiaren azterketa sakon bat egin gabe. Eta hemeretzigarren gizaldian batez ere karlisten lehendabiziko gerratearena. Orduan hasi baitzen molde modernoetan euskal problema planteatzen⁶¹.

Karlismoaren eta karlistaden eztabaida lehenago piztua da “gazteria berrian”. Gerraondoko belaunaldiak historia birraurkituz hasi beharra izan ditu; eta, birraurkituarekin, beharbada bere asmo berrien begiez, birrirakurketa diferenteak asmatu dizkizu halaber, dela karlismoaren historia klase sozialen klabean arakaturik (Rikardo, Beltza), dela abertzaletasunaren eztabaidaren ildoan, etab. Txillardegi, adibidez, karlisten independentismoa EAJ-PNVarena baino errealaagoa izan zela; EAJ-PNVak karlismoaren funtsezko akats berberak dituela berriro⁶², etab., 1965erako ari zen jada gogorki polemizatzen, “Oraindik ere karlismoa nagusi Euskal Herrian” salatzeko⁶³. Buruzgainka kuriosoak dauzka, izan ere, historia honek. EAJ-PNV zuzen-zuzen karlismoaren aurka sortu da bere egunean eta Arana Goiriren gatazka grinatsuenetakoa karlistekin izan da. Urteak pasa eta, batez ere norgehiagoka elektoralean eta herrietako propagandan, jeltzaleen tesia bihurtuz joango da, egiazko karlismoaren eta abertzaletasunaren artean ez dagoela diferentziarik⁶⁴, oraingo karlistak ez direla zinezkoak, Foruzaleak benetan berak direla, “karlismo autentikoa”. Bitartean sozialismoa, liberalismoaren aurka sortua, “gu gara liberalak” predikatzena bihurtua da bera ere, eta EAJ-PNVarekin dihardu lehiaketan. XIX. mendearen jarauntsi puskak honela Alderdi politikoko partitu dira. EAJ-PNVtik ikusita: sozialistak berdin liberalak berdin espainolistak eta antieuskaldunak eta erlijio-gabeak dira. Sozialistotik ikusita: abertzaleak berdin karlistak berdin erreakzionariak. Topikoak bilakaturiko eskema hauek abandonatuz, edo abandonatzearen, ekin zaio –Rikardoren moldean esateko– “gure historia errealaaren bilaketa” edo Euskal Herriaren birgogoetari gazteria berrian. Gero ikusi behar izan dugunez, XIX. mendearen birrirakurketak berak zentzugabeki zentzu polemikoa hartu du, karlismoa eta liberalismoa berriro banderak bilakatu dira: gure antzoki politikoa horrela santakruzista progrez eta liberal berri arkaikoz bete da apika, XX. mendean XIX.a berpiztuz. Hemen interesatzen zaigun bakarria estriktoki

⁶¹ *Jakin* 33 (1968) 1.

⁶² Funtsean “espainolismoa” (beti Madrildik itxaroten soluzioa).

⁶³ Ik. TXILLARDEGI, “Oraindik ere karlismoa nagusi Euskal Herrian”, in: *Huntaz eta Hartaz*, Baiona 1965, 17-26. Ik. orobat IGARA, “Txaho Zuberotarra eta Lehenengo Karlistada”, *Jakin* 33 (1968) 18-22.

⁶⁴ Joera honetan dago ja ORIXE, *Santakruz apaiza*, 1919.

Rikardoren ikusmoldea da, bere esanahi zehatzean: historia ikasi egin nahi da, objektiboki nola izan den zer, orain zertan gauden ikusteko. Historian ez dira justifikazioak bilatzen, baizik esplikazioak.

XIX. mendea Euskal Herrian (hegoaldean esan nahi dugu) arras konplexua izan da: ezagunena karlisten eta liberalen arteko gerrak ditugu; baina –Euskal Herrian, edo zona batzuetan bederen– iraultza urbano antzeko bat ere ematen da, landerriaren aldean hiritxoek (hazkunde azkar batean sartuek) indarra hartzen dutela, industriapen inportante bat, langile arrotzen etorrera uholtsua, ideia liberal, sozialista, integrista berrien eraso eta postura tradizionalen krisia, etab. Politikoki Foruen eta autonomiaren galera, eta euskal gizartearen apurketa soziala nahiz ideologikoa, oposizio gogorrak sortuz alor guztietan (erlijioa, politika, ekonomia...). Eskematxo sinple batekin Rikardori errazago segituko diogu prozesu honen urratsetan (jarraiko guzti hau 1967an JAKINen publikatua dela gogoratu behar dugu berriro):

1) Aurrehistoriaz oharra: “Hemeretzigarren mendeko situazioa eta ideiak batbatean sortutakoak ez dira. «Argien mendean» Madrilgo erregeen absolutismoa eta zentralismoa indartzen zihuan neurrian hasi zen euskaldunetan bere kondizioaren berezitasunaz kontzientziaraztea. Esnatze honek eboluzio luze bat izango du. Aspaldidanik errealitate bat izango da, izkutua bederik ere. Hemezortzigarren mendeaz geroztik hasiko da, ordea, sendotzen. Eta defentsibaren seilua eramango du bere baitan” (RA 117).

2) Foruen krisia (oinarri ekonomikoa): “Komerzioaren eta ekonomiaren hazitzeak horien manejatzaileak diren euskal komerziogile burgesak Euskal Herriaz gaindik zabaltzera eta begiratzera bultzatuko ditu. Eta Madrilera begiratzen hasiko dira. Fuegoak ekonomiarentzat zituen zenbait puntu kaltegarriak izango dira Euskal Herriko ekonomiarentzat” (Ib.).

3) Hiri eta landerri arteko interesen oposizioa: “Indartzen zihozan euskal hiriak, Bilbao eta Donostia, eta euskal burgesak beltzak [liberalak] ziren. Hauek librekanbistak ziren. Izan ere garai haietan politikan liberalak zirenak ekonomian librekanbistak ziren. Bilbotar eta donostiar euskaldun burgesak ere librekanbistak ziren, librekanbioa bere komerzioaren eraginez Espainiaren barruan ikusten bazuten ere. –Fueristak, politikan eta ekonomian, autarkizaleak zirela esan genezake. Aislazionistak” (Ib., 116-117).

4) Gerra eta gerrako alderdiak: “XIX. gizaldian situazioaren eusleen eta aurrelarien artean, karlista eta liberalen artean, gerla piztuko

denean, euskal burgesak bigarrengoekin izango dira. Espainian erreboluzio liberalaren bitartez sortzera zihoan Estadu berrian ikusten zuten biderik egokiena Euskal Herriaren komertzioarentzat” (Ib., 117-118).

5) Foruen krisia (oinarri politikoa): “[Liberalek] karlisten gerrak irabazi arren Espainian apenas gertatu zen burges eta liberal erreboluziorik. Euskal liberalak ere euskal arazoetaz arduratzen ziren. Baina berak egin nahi zuten erreboluzioa frustratua izan arren, izandu ziren kontserbadoreak Espainian zentralismoak reakzioari ekarri ziezaiokeen bentajaz konturatu zirenak. Frantziako kopia izan zen hemen egindako zentralizazioa eta han bezala goitik beherako gobernu bati indar guztiak emateko. Agintea esku batean eta leku batean bilduta izatea komeni zitzairen, bestela posible baitzen erresistentzia herrikoiak sortzea, beste aginteetan noski” (Ib., 118)⁶⁵.

6) Klase sozial edo talde ekonomiko-sozial nagusien esanahi historikoa: “Mende horretan burgesia, Donostia eta Bilboko komertzio-gile eta kapitaldun liberalak, goraka zihoan indarra osatzen zuten. Horiek ziren aurrelariak. Besteak, nekazaritzan finkatuak, luraren jabeak edo lurra lantzen zutenak, desegiten zihoan nekazari zibilizazioaren eusleak” (Ib., 117).

Historia hori guztia atzean daukala, hertsiki lotua ere, beste historia bat dago, “euskaltasunarena” nolabait esan, guzti horrekin osoki identifikatzen ez dena ordea. (Kuriosoki puntu honetan liberalak desagertu egiten dira Rikardoren analisisian, aurrerantzean ez dute ezer pintatzen!)⁶⁶. Euskaltzaleak ez karlistak eta ez liberalak dira derrigor: batekorik eta bestekorik dago egon, eta ez bat ez bestekorik. XIX.a mende erromantikoa ere badela, ikerketa antropologiko eta linguistikoa ere badela, etab., etab., hartu beharko litzateke kontuan analisi osoagorako. Izan bedi hauxe aski guretzat: Euskal Herriaren edo eus-

⁶⁵ Hau inportantea da Rikardoren irakurketan: zentralismoa ez da ideia liberal bat, iraultza liberalaren porrotaren efektua baizik, kontserbazaleek erreakzioaren alde gortua, eta ezkerak gero beretzakotua. Ik. *Jakin* 27-28 (1967) 93: “Benetako erreboluzioa egin zuten konbenzionalak pentsatu zuten Frantzia ez da gaurko Frantzia zentralista amorratua. Zekarkiten demokrazia Frantziaren lurralde guzietan ezarri ahal izateko agente eta indar guztiak leku eta zentro batean bildu beharrean aurkitu ziren. Kontserbadore eta reaktionarioak, ordea, berehala konturatu ziren zentralismoa zela mediorik egokiena herriarengandik zetorren demokrazi eta sozialismo eskeari mugak jartzeko”.

⁶⁶ Hain zuzen iraultza liberal politikoa frakasatua ametsetan errefuxiatu duen erromantizismoa, “liberalismoaren” itxuraldapan edo “damua eta konbertsioa”, etab., gisako hainbat orduko fenomeno, eskapatu egiten zaio Rikardoren aztergailu kontzeptual itxi samarrari.

kaltasunaren mirespenezko “deskubrimendu” bat dago (linguistiko, antropologiko, etab., baina baita politikoa ere!), eta horrek euskaltasun horrexen krisirik beltzenarekin kointziditzen du. “Mende hau inbestigatzaileen mendea izango da. Euskaldunen hizkuntza eta arraza estudiantzera etorriko dira jakintsu ospetsuak Alemaniatic, Frantziatic, etab., *eta herri hau erabat aparteko dela ikusiko dute. Bestetik historiaren* aldaketa handietan bere apartekotasuna duelako, Europako herri handi eta aurreratuenetik begiratuta ontasun natural batean bizi zirelako, nahi ez izanda ere Rousseuren «basati ona» —«baserritar ona» esango genuke guk— zetorren oroimenera. Ontasun naturala, sentidu honetan, alegia, industriatutako eta asko desarroilatutako gizarteen artifizioiderik gabekoa” (Ib., 119).

“Horrelako giroan hasi zen jaiotzen ezagutzen dugun Euskal Herri modernua, industriatu eta modernua” (Ib., 118). Zer daukagu? 1) Bere iraultza proiektuetan frakasatu duen talde ekonomiko liberala, orain beste bide batzuetatik sartuta Estatuaren transformazioan — eta analisitik desagertua, esan bezala. 2) Galtzaileen landerriko jendemasa handiena: beste haiek “ez zirela edo euskaldun gaiztoak zirela zioten. Euskal Herriari traizioa egiten ziotela atzerriko ideia eta gizonen morrontzan. Gainera Jainkoaren etsaiak omen ziren libertatearen ideia txoro eta arriskorrek ekarri zituztenak. Euskaldun izatea fededun izatea omen zen” (Ib., 117). 3) Baina batez ere “euskaltzaleak” dauzkagu, hemendik aurrera interesatuko zaizkigun bakarrak, ideologia berezi baten ore-gileak bezala ikusten dituenak Rikardok (oposizio politikoen gainetik antza). “Euskaltzalea esaterakoan euskal problemaz arduratua esan nahi da. Baina ez nolanhikoa. Euskaltzaleek Euskal Herriaren eboluzioan gorputz soziologiko bat osatu dute. Gutxi gorabehera euskal gizartea nekazaritzarenarekin identifikatu zutenak osatutakoa da” (Ib., 120).

Irganaren inperioa

“Inguratzen gintuen Europa hiritartzen ari zen bitartean, gure herria ertzean gelditu zen. Euskal Herria esaten dudanean, gure oroimen kolektiboa esan nahi dut. Europako hiriazioa baino atzerago heltzen den oroimen kolektiboa. Horrexegatik beharbada, Homeroren Grezia baino zaharragoa delako, indartsuagoa da guregan kalearenganako mesfidantza” (Ib., 164).

Mundu industrial modernoan euskaldunak ez du bere burua kausitzen. Ez du lekuri aurkitzen bere buruarentzat. (Oroit Unamuno). “Irganaren” idealizazioa hasten da orduan orainaren ihesi. Gutxienez bi

forma berezi behar da (Rikardorekin): Arkadia zoriotsuarena eta "Iparalde jentila"rena. Bien aurka, euskaltzaletasun berria.

a) "Oraingoaren txartasunak lehengoa idealizatu egiten du, hots, lehengoaren idealizazioan finkatzen den ideologia suspertu. Euskaltzaletasunaren historian hori maizegi gertatu den gauza da. Jatorristek, esate baterako, desgaraian lehengo hori Arkadia zoriotsu bat bezala fijatu egin dute, kanpotik datorrenari oztopokak jartzeko eta mugimendua ukatzeko" (Ib., 165). Baina -kasu!- Arkadia oso kristaua eta txintxo da hori, batetik; Rousseuren "basati onaren" antz-antzekoa ere bai, bestetik, paradoxalki. Rikardok euskaldunaren idealizazio horren rousseunianismo eta katolikotasun nahasketa aipatzen du beti⁶⁷.

Rikardoren analisisan korrante hau errepresentatzen duena EAJ-PNV da batez ere.

Fenomeno hau ez da Euskal Herrian isolatuta ikusi behar, Europa osoko katolizismoaren zerbait bezala baizik. "Frantziako erreboluzioa sortu zenez geroztik Europako kristauak, batez ere katolikoak, defentsiban bizi izan dira, ghetto batean bezala eta askotan Erdi Arora bueltatu nahian"⁶⁸.

b) Beste korrante Rikardok seinalatua "jentilista" da, mundu modernoan euskaldunarentzat lekurik aurkitzen ez duena berau ere, eta iraganeko euskalduntasun forma jator batean aterpetu nahi lukeena orobat Moderniaren kazkabarretik. Baina bestearen forma kontrario batean hau: nekazari apal, bakezale, kristau debotoaren lekuan, piztia basagudari, euskaldun harro, ez demokratiko, libertari, jentil (prekristau) batean. EAJ/PNV iraganera itzuli bada, hau iraganagora. Joera honentzat Pio Baroja aipatzen du Rikardok⁶⁹. Egungo zibilizazioa ezin jasanda, hau ere antigualera itzuli da, ez Erdi Aro fededun foralera, baizik askoz antzinagoko antzinate batera, kristautu eta, beraz, izpiritualki

⁶⁷ Nahasketari berari erreparatu gabe: beti bi elementuei erreferituz, ordea.

⁶⁸ Eta jarraitzen du textuak hemen: "Ez baitute behar bezain laster ikasi katolikoek mundu honetako gauzak eta erlijioa bakoitza bere lekuan jartzen. Hortik sortu dira gaur egunean beharrezkoak ez diren konfesionalismoak. Badira partidu asko kristau izena dutenak. Esate baterako, kristau demokrata partidu guztiak. Beharbada sortu ziren garaian konpreni zitekeen horrela izatea, baina gaur egun ez".

⁶⁹ "Pio Barojaren obra guziaz irakurtzen baldin bada, badirela jatorristek bezala lehengora itzuli nahi dutenak ikus daiteke. Joera honi deitzen diot jentilismoaren tentazioa. Bada joera bat, oso agirikoa ez baldin bada ere, jentilismoa, euskaltasunaren manifestazio jatorra bezala -kristautasunera baino areago-, birbaliatu nahi duena" (RA 165). Mirande ez da aipatzen, eta benetan autore xuberotarra gure garaian zein gutxi ezagutzen zen, izan daiteke seinale.

latinizatu aurrekora, euskaldun egiazki jator paganora (Odin eta mitologia gemaniarrekora bitxiki samar!), kanpoko eragin arrotzek kutsatu aitzinekora. Antzinate prekristaua (antikristaua!) inspirazio garrantzizkoa eta harrotzeko motibo printzipala bilakatzen da joera honetan. “El vasco es más antiguo en Europa que un eslavo, que un magiar y hasta que un germano”, idatzi du Barojak, prehistoria europarraren ezagutza inseguru samarrarekin ikusten diogunez (*La Nave de los locos*, 1925). Antzinate horren eta paganismoaren amorez, sorginen errebindikazioa, etab. (eta, herri tradizio guztiaren aurka, sorginak neska polit gutuziagarriak –jentilak– bihurtzea), edo gerraren eta indargintzaren loriapena, zaldun inmoralista, ongi eta gaizkiren gainetikoa, posible bilakatuko dira hemen⁷⁰.

Tubalkumeak edo espainolik espainolenak izatetik, arbaso gabeak eta europarrik europarrenak izatera aitzinatu gara horrela. Eta, mitologia zaharra berrituz, lehen ia erromatarren pareko baginen, erromatarrek zirenean historian handienak, XIX. mendearen buruan arraza germaniarrak goititu dira munduan jaun eta nagusi, eta horra gu germaniarron pareko bilakatuak eta, deskuidatzen bazara, germaniarrak berak ere baino panpoxago...

Pentsamendu bezala, egungo euskalduna iragandako baten kopia izatera behartu nahi zuten gizatasunaren ideia arras okerrean eta historiaren filosofia zentzugabe batean finkatuak, balioesten zituen Rikardok ikusmoldeok, bata zein bestea. Baina, grabeagoa, politikoki “euskal poujadismoa” berak deitzen zuenaren base posiblea eta arriskua legez ikusten zituen bi-biak⁷¹. Euskal poujadismo baten arriskuak bi iturri

⁷⁰ Antzinate zahar-zahar hura korrante honetan da egiaz ideologikoki zentrala eta aktiboa, ez, ideologo berri sutsu batzuek (Mikel Azurmendi, Gorriaran) ideologia zahar hoztu batzuk analisatuz, analisatu ordez beraiek asmatu eta muntatu nahi izan duten “aranismoan” (Barandiaranen bermeaz omen!), non antzinate ideologikoki pisuduna ertarotarra soil den, eta antiguale prehistorikoa eranskin lagungarri hutsa, periferikoki bakarrik aktibo (ideologian).

⁷¹ “Poujadismoaren izenpean beheko talde, klaseen, erakzio batzuk estaltzen dira. Gizarte bat edo herri bat hazitzen doanean, talde hauek izaten dira gehienbat sofritzen dutenak; baina langileen gain daudela uste dutelako-eta, kapitalismoa ez dute ezkerretik kritikatzeko, eskuinetik baino” (HL 214-215). Pierre Poujade, liburu eta paper denda baten jabea, zergen grebara deitu zuena 1953ko egitura ekonomikoen aldaketa-krisian komertzio txikiak eta artisautzak jasan zuten jipoiagatik, eta 1956ko hauteskundeetan sekulako arrakasta izan zuena berak sortu alderdiarekin (“Union de Défense des Commerçants et Artisans”), 1962koetan desagertua ordea. Poujadismoa protesta mugimendu burges-txiki tankera faxistoidekoa signifikatzeko geratu da, etsaia bai kapitalismoarena eta bai alderdi marxistena eta sindikatuena, bere eusleak merkatarriak, langarri edukitsuak, artisauek eta, orohar, autonomoak izaki, “hobetxo usteko” populua.

edukiko luke. Bat ekonomikoa: jabetasuna, propietatea, oso banatua dago Euskal Herrian (lantegi txiki asko, dendari, etab.), eta laster jabetasun txikiok nahitaez krisian sarraraziko ditu garapen ekonomikoaren abiadak⁷². Bestetik, ideologia atzerakoi bat, ekonomia horrekin batera oso zabaldua dagoena jende horietantxe, eta krisiunean arriskua dagoena agresibo bihur dadin. “Euskaltzaletasuna, XIX. gizaldiaz geroztik aztertzen hasten bagara, batez ere nekazaritzan sustraitzen dela ikusiko dugu (...). Nekazaritzan finkatuak esaterakoan, ez da esaten baserrian lan egiten dutenak, beren izaeraren estrukturak –batez ere pentsamenduarena– nekazaritzakoak dituztela baizik. Hori beste leku askotan gertatutakoa da. Europan, neurri handi batean, kristau demokrazia sozialisten kontra indar horietan finkatu dela ukatzerik ez dago”⁷³. Nolabait esateko “kultura” horretan bizi den bere ustezko “jende jauntxo”, krisiarekin “itota, hil zorian aurkitzen da. Orduan, sublimazioaren bitartez, berak –berak bakarrik– osatzen duen kolektibidade, elkarte, Herri edo honelako zerbaiten irudia maitatzera iristen da. Narzisismo leun bat beharrezkoa da, edo gutienez ez da kaltegarria (...). Narzisismo astuna, lehen esan bezalakoa, ez da dinamikoa, estatikoa, geldia baizik. Bere elkartearen, kolektibidadearen, irudia gehiegi maitatzean fijazioa sortzen da, eta honek ez du mugitzen uzten” (HL 216-217). Joera narzisista paralisatzaile honek etorkinen arazoa bihurtzen du, batez ere, inolako irtenbide posible gabekoa. Baina, orokorki, Euskal Herri berri bat ez du inondik posible egiten eraikitzea.

Iraultza

“Euskal Herria kaletartu egin da. Erdaldunek hiritartu, hots, zibilizatu, egin dela esango lukete. Hori da gure estiluen eta iskanbilien iturria. Baina, baita ere, hori da, beste horrenbeste gertatu denez, teknika-
ren bitartez aurreratu diren herrien iskanbila-iturria. – Aspaldidanik, mendebaleko hiri-kulturaren jaiotzetik, hiri-baserri binomioa, baserrikalea euskaldunontzat, izan da giza historiaren mugak erabaki dituen. Aurrerapenak, edo eta beldurrak, behin eta berriro gizona galdutako Paradisura (baserrira) bultzatu du. Zorioneko Freud! Mundu honetan sinesteak, aurrerapenean sinesteak, gizona posible dela uste izateak,

⁷² Rikardo 1966ko urtarrilean ari da hau idazten (gogoan hartzekoa, haren eboluzioaren momentuak zehaztu nahi direnean) eta *Plan de Estabilización* eta *Plan de Desarrollo* en ezinbesteko eragina du begien aurrean.

⁷³ HL 215. Begira kristau demokraziari buruzko balorazioari jada hor!

atzeratzen duzue joera duen gizon berberari aurrera eragiten dio, hots, kalera bultzatzen du" (RA 163-164).

Krisia kale-baserri oposaketaren terminoetan interpretatzea, belau-naldi honek anitz egin duena da, "Euskal literaturaren etorkizuna" saio sonatuan (1951) Mitxelena kontzeptu horietaz baliatu izanez gero⁷⁴. Baserriak lehena esanahi du, kaleak etorkizuna.

Rikardok bere borroka gehiena iraganaren inperio astuna eta "esentzialismoa" euskaltzaletasunean borrokatzeko egin duen arren, ediren du oraindik, iraganari erreferitza ez dela beti guztiz zentzuga-bea, aitortzeko beta pitin bat. Oteizaren "Quosque tandem...!" aipatuz egin du, autokritika batekin batera. Ez da Oteizaren ideiei oniritzeko, haren saioaren legitimotasun osoa aitortzeko baizik, estetika berri bat euskal arte zaharrean inspiraturik sortzeko. "Izan ere, egun, herrien hautasuna, identitate printzipioa, arazorik nagusienetakoa bihurtu da. Hortik dator sustraietara itzultzea" (RA 164-165)⁷⁵. Herriek nortasuna zeharo erantzi eta galdu gabe nahi badute Modernian barrena etorkizunerantz aurreratu, erreparatu beharra daukate sustraietara, haietan katigaturik geratzeko ez, baina inspirazio berria zurgatzeko han garapen berrietarako, herrien eta kulturen ugaritasunean eta aberastasunean. "Hautasuna galdu nahi ez badugu, eta besterretzea hautasunaren galtzea litzateke, gure jatorrira itzuli behar dugu, oroimen kolektiboak hautsi gabe jardun behar dugu" (Ib., 164). Horiek divertimento burges-txikiak direla, osteria liezaioketen "marxista primarioei", ad hominem erantzuten die: "Vietnamdarrak (...) «vietnamtasunaz» kezkatu baldin badaude zerbaitegatik izango da. Eta ez da inor izango, noski, vietnamdarrak erreboluziogileak direla ukatuko duenik" (Ib.)⁷⁶. Herritasuna eta komunitatearen sustrai historikoak ezikusi nahiago duen progresiari

⁷⁴ Ik. MITXELENA, K., *Idazlan Hautatuak*, Bilbo 1972, 34-35: "Larre-hizkuntza dena kale-hizkuntza bihur dedin, hain maite dugun garo-usaina –norbaitek gorotz-usaina esango luke– zertxobait galtzea nahitaezkoa izango du. Kaletarrak ere euskaldun gara, batzu behintzat, eta zori gaiztoz edo zori onez kaletarrok gero eta gehiago gailentzen ari. Eta kaletarren buru-bihotzak ez izaki beti lehengo euskaldunenak bezain garbi".

⁷⁵ Pio Barojaren "jentilismoa" bera aski interesgarria iruditzen zaio bame-bamean: "Joera honen azterketa serio bat egin behar da, ez baita, nik inoiz idatzi izan dudana bezala, esentzialismoa hutsa esanaz bazter daitekeen arazoa. Joera horiek oso inportanteak dira euskaldungoarentzat, ezin bazter ditzakegu" (RA 165).

⁷⁶ Rikardok ez du era honetako adierazpen askorik; Debako euskal jaiaz idatzi duenak, horregatik, merezi du aipatzea: "Baina ez dezatela uste, folklore egun batean parte hartzen dugulako museoak izateko gogoia dugunik, edo museoak izateko prest gaudenik (...). Euskaldun izaera industrializatutako gizarte honen maila guztietan zabaldu eta osatu beharrezkoa da" (HL 350).

Rikardok teorizismo antzua derizkio: “Batzuek, oroimen kolektiboa ahazturik, kaletartzearen lasterra segitu besterik ez dute egiten (...), unibertsaletik heldu nahi dute konkretura. Horregatik dira erudizio gehiena dutenak, marxismoaz gehiena dakitenak. Baina, baita ere, horrexegatik dira praxi ahulena eta geldiena dutenak; hitzetan finitzen den praxia” (Ib., 166).

Dena den, aitortza bat da eta apenas ezer gehiago. Bestela ez dirudi elkarrekin zer egin handirik aurkitzen duenik berak iraganzaleekin. Horiekin osoki kointziditu, egungo zibilizazioaren kritikan eta jasanezinean kointziditzen du, gero kritikaren zentzua guztiz bestelakoa izango bada ere (Rikardok etorkizunean bilatzen du soluzioa, ez iraganean). Ezkertiar bezala bezanbat euskaldun bezala arbuatzen du modernitate hori, alienatzaile eta deusgizatzailea delako sistema bera, eta euskaldunaren ukatzailea momentu historiko gisa. “(...) Industriadze honekin batera euskaldun izatea jarriko da arrisku gogorrean. Ekonomiaren desarroilorako Euskal Herriko mugak Espainia guztira zabaltzeak zentralismo politikoa ekarri zuen. Honekin batera kultura alienatu bat, beste funtzioan pentsatu zelako” (Ib., 120)⁷⁷. Baina euskaldunaz ahaztea, sistema horretan, gizakiaz ahaztearen ondorioa da batez ere, edo gauza bera da: gizarte industrial hori berez da alienatzailea, “gizonari bere autonomia kentzen diona. Gizona eta gizartea sortzen joateko duen derrigorrezko beharra lapurtzen diona. Gizon izanik, gauzatu egin nahi duena, numeru eta gauza gisan errazago manejatua izateko. Euskaldun izatea, hots, gizon konkretu bat izatea ukatzen diona, eta konkretu egiten duen kondizionamentua ukaturik *beste*en normak eta izaerak proposatzen dizkiona” (Ib., 124).

Bakarrik, sistema horri ez dago ihes egiterik iraganaldi gozo batean errefuxiatuz, apurtuz eta errotik irauliz baino. Gizakiarentzat hala euskaldunarentzat, berdin da: Iraultza da irtenbide bakarra⁷⁸.

⁷⁷ Horren aurka altxatu da euskaltzaletasuna: hori du alde positiboa bere ambiguoetasunean (aurrerapenari uko egitea da beste aldea, onartezina). “Industriadzearen garaiek aurrerapen bat dakarkite gizonarentzat. Industriadzearekin batera hasiko da euskal izatea itotzen eta gizarte berria egiteko modua laster euskaldunarentzat besteratzaila bihurtuko da, alienaziorako bidea. Mundu guztian bezala behin sendotzen hasiz gero, industriadze honen gidariaren interesak ez dira herriarenekin ados izango. Puntu honetan euskaltzaileek arrazoi izan dute beti. Industriadze hori kondenatu egin behar zen. Industriadze konkretu baten kontra borroka egiteak, ordea, ez du esan nahi industriadze guztia txarra denik. Ez da igarotakoari dei eginaz desegingo industriadzearen *era* txar hori. Industriadzearen progresua onaturik, hau euskaldun eta gizontiarra eginaz baizik. (RA 120-121).

⁷⁸ Ik. “Reformismoa” (HL 94-96).

Gizatasunean sinetsi: euskaldun berria eraiki

“Euskaltzaletasunak bere belaunak ditu” (Ib., 122). Ez bedi zozoke-ria soiltzat har. Esan bezala, Euskal Herria zer den eta zer den euskalduna izatea, historikoki –ebolutiboki– bakarrik uler daiteke. Baina ulerpena bera ere historikoki ulertzen saiatu behar dugu, molde bakoitza bere ingurumari eta baldintzekin, tenoreko ahaltasun eta ezinen ginoan.

“Euskal kultura”z 1966an daukan gogoeta soziologiko batean⁷⁹, Rikardok hiru euskaltzale belaunaldi edo aro berezten du; edo, agian hobeto, bi aro eta erdian trantsizioko tarte bat. Lehenak, “euskal kulturaren berbizteak, agoniak, heriotzako zoriak sortarazi zuen berbizteak, hemeretzigarren gizaldiaren bukaeran hasi eta 1939 arte iraun zuen” (HL 219). Bere inguru eta baldintza ekonomiko, politiko, sozialen arabera jokatzuz, euskaltzaletasun horrek defendatu eta landu duen euskal kultura “kultura ruralista” izan da gehien-gehienbat. Trantsizioko bitartea dator gero: “1936az geroztik azkeneko urte hauek [arte] doa euskal kulturaren berbiztearen bigarren etapa eta maila bat. Ixilagoa eta beharbada ilunagoa. Ezin daiteke esan, ezta gutiago ere, etapa horretan belaunaldi bat galdu dela, gerla osteko belaunaldia. Izan dira izen handiko gizonak, lan egin dutenak; baina belaunaldi bezala atzera gelditu direla uste dut” (Ib., 220). Hirugarren belaunaldia, 1960 inguruan hasita, “gazteria berria”rena da, baldintza ekonomiko, politiko eta sozial berrien arabera jokatzuz, Euskal Herri kaletartu, industrializatu baten erronkari erantzun nahi diona, euskaltzaletasun iraultzailearena (Ib., 220-221). Euskaltzaletasun honentzat “euskalgintza berdin iraultza berdin gizagintza” trinitateak balio ditu.

Iraultza ez da ideia bat bakarrik. Ideia adina barru-barruko amorrazioa da:

AMORRAZIOA

Amorrazioak prentsa txarra du. Norbaitek amorrazio bizian dagoela esaten baldin badu, ezer onik ezin lezakeela uste izan ohi da. Gizon amorratuak, gizon arrabiatuak, entzuten dugunez, animalien mailan jartzen dira. Gizon horiengandik ez da ezer onik espero. Baina lur honetan gizon arrabiatu asko da, amorrazio bizian dena. Eta askotan, gehienetan beharbada, arrazioa, justizia eta eskubidea heuren baitan dago.

⁷⁹ HL 217-221: “Euskal kultura”.

Arrazoiak gauza hotz bat izan behar duela dirudi. Norbaitek arrazoiak, bere eskubidea, berotasunez defenditzen duela agiri baldin bada, behingoan uste izango da arrazoirik gabeko gizona dela.

Izan ere, burgesiak jaso duen gizarte honetan, arrazoiaren berotasuna ukatu nahi da. Horregatik edozein berotasun, edozein pasio, desarrazoiaren seinaleztat salatzen da.

Gu, osterak, Euskal Herria noski, herri erreboltatu bat gara. Bizi garen kondizioetan herri erreboltatu bat izateko ahalmenik ez badaukagu, gureak egin du. Gure arrazoiak gizatiarrak direnez eta ez makinarenak, arrazoi beroak dira. Amorrazio bizian bizi behar genuke. Horretxek bakarrik eman liezaiguke, egin behar dugun borrokarentzat derrigorrezkoa dugun ausardia eta zaletasuna.

Gizon arrabiatuak ahalezina adierazten duela esan ohi da. Eta egia galanta da hau. Arrabiatua, ezarritako gizartean bere gizatasunarentzat posibilitaterik aurkitzen ez duelako da arrabiatua. Horrexegatik da arrabiatua, bere gizatasuna defenditzeko beste posibilitaterik ez daukalako.

Seriotasunari, formalidadeari buruz, irudi gezurtiak ditugu. Edukazioari buruz, beste horrenbeste. Irudi eta uste horiei jarraitu nahi izatea, izugarritzko tranpa batean jaustea litzateke. Bestek nahi izandako bideetan, bestek nahi izanikako eran. Hori bakoitzaren nortasuna osatzeko izango balitz, zer esanik ere ez; baina bakoitzaren izakerarentzat kate izateko egina izatekotan, erru handi bat bezala azaltzen da.

Lotsarik gabe azaldu behar da, amorrazioan bizi garela. Gure arrabioak ez digula sosegurik ematen. Eta arrabio horren berotasunean egiten dugula borroka, berotasun horregaz jaso nahi dugula mundu berri bat. Horregaz Euskal Herria berregin nahi dugula" (HL 233-234).

Mundu berri bat, amorrazioz eraikia: Euskal Herri berri bat, gizon-emakume euskaldun berri bat, h. d., gizatasun berri bat. Horra Rikardoren gogoeta guztiaren hari gorria, eboluzio eta aldakuntza guztien barru-barruan etenik gabe jarraitzen duena beti. Rikardorentzat borroka guztien erdia⁸⁰ nahiz abiapuntua zein jomuga, historian eta

⁸⁰ "Eta, zorionez, oraindik hogeigarren gizaldian gizona dago historiaren erdian, ekonomiaren erdian, gizartearen erdian" (HL 250).

orain, beti puntu bera da, gizatasuna. Vietnamen eta hemen: "Mundu guztian dugun eginbeharra berdina da: gizon izateko eskubidea irabazi" (Ib., 282)⁸¹.

Kazetari berri, oraindik demokrata-kristaua zela (1963), "eskerrak gizonarengan sinetsi dualako, eskerrak egiarengan sinetsi dualako" zuzentzen zitzaion hunkiturik USAko Presidente J. F. Kennedy asasinatu berriari, sentimentuz eta eskerronez gainezka: "gizonarengan sinesten huelako, eta gaur egunean gizonarengan sinestea sinesten zailenetakoa delako" (Ib., 80). Interes zentral honekin Rikardo tradizio pertsonalista ezagunean txertatzen da, bigarren Mundu Gerraren inguruan eta gero Euskal Herrian eragin bultatsukoa (Rikardoren Santamariaganako urbiltasuna berriz gogoratu beharrik ez dago, nik uste). Teilhard de Chardinen pentsamendu hau Rikardok berea egin du eta bere irakurleena bihurtu nahi zuen: "Benetan harrigarri eta nekoso da ikus-tea izadi guztia bi zatitan erdibituta. Batzuk urrutira, aurrera begira daudenak eta neofitoen fedearekin «bai, bagoaz, aurrera goaz» esaten dutenak. Besteak, berriz, beren lekutik mugitu nahi ez dutenak. «Ez da ezer aldatuko denik, ez gara mugituko» esaten dutenak. Neofito horietarik izan gaitezten. Ez aurrerapena, progresismoa besterik gabe maite izategatik. Gizona maite dugulako baizik, gizonarengan sinesten dugulako, eta gizonarengan sinestea gizona hobetu litekeela sinestea delako" (Ib., 151).

Gazteria edo euskaltzale belaunaldi berriaren errebolta eta amorrazioa gizatasun zanpatuarena, hertsatuarena da amorrazioa eta errebolta. Bizi garen hau euskalduna eta pertsona ukatzen dituen gizartea da. Alienatzailea. Euskal Herriaren historian fase berri bat ezinbestean probokatu duena. "Honela kontzientzi eta errebeldi berri bat jaioko da. Euskaltzale berria gizon erreboltatua izango da. Euskaldungoa berrasmatu beharko da. Euskaldunaren gizongintza ez da izango lehengo gizartearen gisara moldatzea, sortu eta izateratu beharko dena baizik. Erreboltatua denez euskaltzale berriak lehendabizi bera sortu den giroan zabalduta dauden kateak lehertu beharko ditu. Bere gizatasunaren autonomia reibindikatu du" RA 124). Arrazoi guztiarekin bere gizagintza honetarako ez du Jainkoaren beharrik izango. Ez da tradizioen pean esklabu lotuko. Bere autonomia oztokatzen duen dena astanduko du eta etorkizunera begiratuko du. Kontzeptu berriak, ideia

⁸¹ "Bakoitzak, ordea, bere giro konkretuan egin behar duena da. Batzuk borroka beroan eta agirian dabilzala-eta [Vietnam], haientzat gure sinpatia guztia azaldurik, ahaztu ezin dezakeguna da" (HL 282).

eta helburu berriak bilatuko ditu. “Sozialismoa, demokrazia, errepublika, monarkia, kapitalismoa, komunismoa... zer eta zertarako gaurko munduan? Horiek gaurko errealitatearen atzetik doaz arrastaka, doaz edo... joan nahi dute. Lehengo gizaldian, berriz, aldrebes: ideiak errealitatearen aurretik” (HL 204).

Rikardok badaki, gizatasunaren aldeko borroka luzea dela, bai luzea. Garaipenak eta derrotak bereztea beti ez dela erraza. “Guk gizonarengan sinesten baitugu eta guretzat inportanteena gizonaren aldeko borroka egitea da. Irabaztea edo ez ere oso inportantea da, baina borroka hainakoa ez. Bai bailiteke aspaldi eta luzaro batean bukaerarik gabekoa izatea” (Ib., 278).

Borroka ilun eta luze horretan, zer aurreratzen eta irabazten dugun igarri ezin dugula, atsedean gabe eta gatazkan beti, zerk eutsi esperantzari? “Dударik gabe, gaur eguneko gauzarik zailenetakoa, gizona posible dela sinestea da. Ikusirik nola nonahi desarrazoia den nagusi, indarraren legea nagusi, eta ez legearen eta arrazoiaren indarra. Ikusirik nola ahaleginak ezereztutzen doazen. Ikusirik, toki guztietan, bizitzak galduak, hainbeste jenderen etorkizunak itoak. Ikusirik... Zertako jarraitu? Gizarte gizontiar baten aldeko borrokan heltzen da une bat, bakoitzak bere buruari galdetzen diona: Zertan ari naiz? Zertarako? Ez ote naiz alferrik ari?” (Ib., 230). Eta zalantzak koldaturiko bihotzak sistemaren balakuetan nahiko luke sinestu eta atsedean hartu. Erosotasuna, dirua, aisia eskaintzen dio sistemak gizon-emakume modernoari esku zabalki. Eta, batez ere, askatasunen eskaintza ugari bat aurkezten dio begien aurrean: ez askatasun bat, askatasunak asko, nolana hikoak, askatasun erraz laketgarriak, hor edozein egiaz oztopogabeki norbera errealizatu eta betegin ahal dela sinestarazteko moduan. Sistemak ongi daki, askatasuna maite duela gizakiak munduan ezer baino lehen. Beraz, ez dio ukatuko. Erruz emango dizkio eman, aitzitik, engainuzko askatasunak, hauteskundeetako “inauteri politikoak” (Ib., 293), jabego pribatuko prentsa eta informazio kate “libreak”, etab., etab., askatasunaren lilura eta sorgin-irudia sortzeko, eta konformismoa. Zerk eutsi mundu horretan gizon-emakume berriaren itxaropenari?

Ez dira garaipenak eta egitandiak itxaropenari eusten diotenak, gizon emakumeen –nolabait esateko– askatasunarengatik sakrifizioarako gaitasun moral kasik azkengabea baizik, Kantek Frantziako Iraultzari buruz erreparatu zuen bezala –fedearen zurkaitzik sendoena martiriak direla, aspaldikoa– eta Rikardok behin eta berriro errepikatu.

Bi dira Rikardok alegatu izan dituen arrazoiak esperantzarako askatasunaren borrokan. Batek, tragikoki, gehiago dauka frakasuarekin

zerikusirik, arrakastarekin baino: Vietnam bezalako herrien ikaragarriko sufrimentua da, eta gerra horren aurkako manifestari, desertore eta presoak (Ib., 293, 295-296), behin baino gehiagotan aipatzen duena; eta Martin Luther King eta Alabamako beltzen bakezko borroka ausarta (Ib., 90); Eduardo Mondlane eta “borrokalari ahaztuak” (Ib., 300-301); edo Mikis Theodorakis bezalakoak, gartzelan daudenak askatasunagatik, eta “bera bezala beste asko, Ameriketan, Afrikan eta gairontze-koetan. Batzuek, vietnamdarrek, bonbei fronte eginaz. Beste batzuk isilean lan eginez. Horiek dira realistak, horiek egiten dute gizonaren sinesten jarraitzea posible izatea” (Ib., 200)⁸².

Bigarren arrazoa lagungiroa da borrokan (esperantzian, edo elkarri eusten zaio, edo denak hondoratu, egiten da), Rikardoren kasuan Andoaingo gazteria berria konkretuki⁸³. Etsi ez duen gazteria, “libertatearen antortza esku berrietara pasa dela” erakusten duen belaun berria (Ib., 205), errealitatearekin konforme ez dagoena, errebeldea eta ekile: “... horregatik gordetzen dut Euskal Herrian esperantza” (Ib., 244).

Esperantzarik inoiz galdu gabe Rikardoren borroka helburu duena, ez da Euskadiren askatasun formal paperezko bat: euskaldun berria da Euskal Herri berri batean ekonomikoki eta moralki. Iraultzaren lorea eta fruitua. Izan ere, Rikardok “Esperantza” izenburuko saiotoxo batean Maisua aipatu zuenez –eta esku-eskura datorkigu Mounieren aipu hau bukatzeko–, “erreboluzioa, ekonomiarena izango da; edo, bestela, ez da erreboluzioa izango. Erreboluzio ekonomikoa, erreboluzio moral bat izango da; edo, bestela, ez da erreboluzioa izango”.

⁸² Ik. baita HL 295-296 ere.

⁸³ Ik. “Andoaingo gazteria” (HL 205-208) eta “Andoaindarra naiz” (IB., 243-244) artikulak.